




Osakidetza
Servicio vasco de salud

GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Erizainek farmako zitostatikoekin dituzten intzidentziak eta hauen zergatiak.

GRADU AMAIERAKO LANA
LITERATURA BERRIKUSKETA KRITIKOA

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA

Egilea: Maider de la Torre
Tutorea: Guadalupe Soletto
Urte akademikoa: 2019-2020
Hitz kopurua: 7.963

ESKER ONAK

Lan hau egitea ahalbidetu duten pertsoneri eskerrak eman nahiko nizkieke. Lehendabizi GAL-eko tutore izan dudana Guadaluperi, lan hau aurrera eraman ahal izateko gidari izateagatik eta isladatutako ideia askori buruz aholku oso onak emateagatik. Osasun laboraleko langileak eta praktiketan nirekin izandako erizainei ere eskerrak eman nahiko nizkieke Eguneko Ospitaleko gainbegiraleekin kontaktuan jartzeagatik. Bestalde, Txagorritxuko onkologiako zein eguneko ospitaleko gainbegiraleak eskertu nahiko nituzke; idatzi nahi nuen GRAL-ari buruz nituen ideiak entzuteagatik eta hau burutzeko dokumentazioa eskuragarri uzteagatik. Bukatzeko, nire familia eta lagunak eskertu nahiko nituzke estres altuko hilabete guzti hauetan ni jasateagatik.

Milesker guztioi.

AURKIBIDEA

Sarrera	6
Esparru kontzeptuala eta justifikazioa.....	8
○ Profesionalengan arriskua eragiten dute	9
○ Lan ingurugiroko kontaminazioa eta esposizioa.....	9
○ Gida kliniko eta direktorizeak	10
○ Gaur egungo egoera	11
Helburua	13
Metodologia	14
○ Bilaketa prozesua	14
○ Barneratze eta kanporatze irizpideak	15
▪ Barneratze irizpideak.....	15
▪ Kanporatze irizpideak	16
○ Artikuluen aukeraketa	17
Emaitzak eta eztabaida	20
○ Intzidentziak	20
○ Esposizio okupazionalaren eta intzidentzien eragileak.....	21
○ Langileen esposizioa ekiditeko babes neurriak.....	25
▪ Ingenieritza kontrolak	25
• Primarioak	25
• Sekundarioak.....	26
• Ingenieritza kontrol gehigarriak	26
▪ Kontrol administratiboak.....	27
• Osasun hezkuntza.....	27
• Langileen kontrol medikoak.....	29
▪ Babes neurri pertsonaleko ekipoak	31
• Eskularruak.....	31
• Batak.....	32
• Arnasbideak babesteko maskarak	32
• Begi eta aurpegi babesa.....	33

• Exkreten, isurketen zein estrabasazioen maneiurako babesak	33
▪ Praktika klinikoko kontrolak	33
▪ Ingurugiroaren monitorizazioa eta garbiketa.....	35
○ Babes neurrien atxikipen eza eragiten duten faktoreak.....	36
Ondorioak eta inplikazioak	40
Erreferentzia bibliografikoak	44
Eranskinak.....	50
○ Taula 1. Farmako zitostatikoen mailak lan ingurugiroko azaleretan	50
○ Taula 2. Farmako zitostatikoen presentzia kimioterapia gordetzeko erabiltzen diren poltsetan.....	51
○ Taula 3. Antineoplasikoen maneian kutsadura eragin dezaketen aktibitateen zerrenda	52
○ Taula 4. Onkologiako unitateetan zitostatikoen esposizioa aurkezten diren erizainek aurrera eramandako ingeniariak zein kontrol administratiboak, lan praktika klinikoen eta babes ekipo pertsonalen erabilera Alexandriako ospitaleetan	53
○ Taula 5. Osasun profesionalei antineoplasikoen maneiurako osasun hezkuntza programaren barnean landu beharreko atalak	54
○ Taula 6. HFC edo maiztasun altuko zelulen frekuentziak erizainen azpitalde desberdinetan, zitostatikoekin izandako esposizio denboraren eta erretze ohituren arabera	57
○ Taula 7. Farmako zitostatikoak maneiatzen dituzten erizainetan agertutako SCE/kromatida arreben elkar trukaketa kopurua esposiziopean egondako denborarekin erlazionatuta	58
○ Taula 8. Odol zelulak zitostatikoen esposizioa jasaten duten erizain zein farmaziako teknikarientan Alexandrian, 2016	59
○ Taula 9. Globulu gorri indizeak zitostatikoen esposizioa jasaten duten erizain eta farmazia teknikarientan Alexandrian, 2016	60
○ Taula 10. Estatu Batuetako gida klinikoen arabera zitostatikoak manipulatzeko erabiliko diren eskularruek izan beharreko ezaugarriak.....	61

○ Taula 11. Exkreten maneiturako babes neurriak mantendu beharreko denbora tartea	61
○ Taula 12. NIOSH-en arabera babes ekipo pertsonaleko item bakoitzak bete beharreko ezaugarriak eta hauek erabili beharreko egoerak	62
○ Taula 13. Eszenatoki desberdinetan aplikatu beharreko babes ekipo pertsonalak NIOSH-en gidan araberan	64
○ Taula 14. Babes ekipo pertsonalak eta ingeniaritza kontrolak lan ingurugiroan antineoplasikoekin lan egiterakoan	66
○ Taula 15. Garbiketa pausoak, helburua eta erabilgarriak diren produktuak	68
○ 1. Eranskina: Kontzeptu taula	69
○ 2. Eranskina: Bilaketa prozesua	70
○ 3. Eranskina: irakurketa kritikoa	89
▪ 3.1. Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritiko garatua	89
▪ 3.2. Ikerketa kuantitatiboen azterketen irakurketa kritikoa	93
○ 4. Eranskina: Fluxu diagrama.....	102
○ 5. Eranskina: Kontsultatutako literaturaren laburpen-taula.....	103
○ 6. Eranskina: Zuhaitz kategoriala	141

SARRERA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Farmako zitotoxikoak zelula disfuntzioa eragiten duten substantziak dira. Beren inespezifikotasunak minbizi zelulengan eragina izateaz gain, zelula osasuntsuetan kaltegarriak izatea ere eragiten du. Antineoplasikoen arrisku okupazionalak ezagunak dira eta aurrerapen nabarmenak egon dira esposizioak profesionalengan eragindako osasun arazoengain. Honakoa murrizteko premia, hainbat segurtasun arau atara izan dira osasun langileak beren lan postuetan babesteko eta intzidentziak ekiditeko. Hala ere, profesionalen lan karga, pertsonal eskasia, ospitaleek aplikatzen dituzten murrizketak, osasun hezkuntza falta eta lan ingurugiroko kutsaduraren monitorizazio eza, langileek segurtasun neurriekiko atxikipen eza izatea eragin dezake.

Helburu orokorra: Erizaintzako profesionalek farmako zitostatikoak maneiatzerakoan ematen diren intzidentziak eta hauen zergatiak aztertzea, farmako hauek profesionalengan eragiten dituzten efektu zitotoxikoak ekiditeko dauden segurtasun neurriak eta hauekiko atxikipena analizatzearekin batera.

Metodologia: Artikulu bibliografikoak lortzeko, datu base hauek kontsultatu dira: Medline, Cuiden, Cochrane, eta Cinhal. Horrez gain, eskuzko bilaketak ere burutu dira, horretarako Elsevier (DOYMA) editoriala, NICE, Osakidetza zein Oncology Nursing Society erakundeek argitaratutako artikuluak erabili ziren. Ikerlan gehiago lortzeko helburuarekin, lortutako artikuluen bibliografia ere landu da. Artikuluen aukeraketa egiterako orduan, 2009. urtetik gaur egun arte argitaratutako lanak hautatu dira eta hizkuntzari dagokionez, gaztelaniaz, ingelesez eta euskeraz idatzitakoak. Azkenik, guztira 40 artikulua aurkeratu dira, horietatik: 8 errebisio bibliografiko, errebisio artikulua 1, 18 ikerkuntza kuantitatibo, liburu 1, 7 gida kliniko, protokolo 1, errege dekretu 1, konsensu dokumentu 1 eta 2 prebentzio nota tekniko.

Emaitzak eta eztabaida: Zitostatikoekin intzidentziak emateko bide nagusiak larruazal bidezko kontaktu zuzena, ingestioa, inhalazioa eta bide parenterala dira. Mundu mailako erakunde nagusiek neurri desberdinak ezarri dituzte farmako arriskutsuak maneiatzeko eta deuseztatzeko pautak orokorrak ezarriz. Aurrera eramandako ikerketetan osasun profesionalek euren unitateetan osasun hezkuntzarik jaso ez izana, lan ingurugiroko kutsaduraren monitorizazio eza eta langileen kontrol medikoen gabezia adierazi dute, azken hauek atxikipen

ezaren eragile nagusiak izanik. Izan ere, ebidentziak baieztatu duen moduan aurreko hiru faktoreek farmakoek eragin ditzatekeen osasun arriskuen pertzepzio eza eta erakundeek ezarritako neurrien atxikipen eza eragiten dute.

Ondorioak eta implikazioak: Osasun profesionalen hezkuntza falta, kontrol medikoen gabezia eta lan ingurugiroko kutsaduraren monitorizazioa ezak, hurrengo bi gauzak eragiten ditu: langileek zitostatikoek euren osasunean eragin ditzatekeen arriskuen inguruko pertzepziorik ez izatea eta segurtasun neurri zein praktika klinikoekiko atxikipen eza.

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Farmako zitotoxikoak zelula disfuntzioa eragiten duten substantziak dira. Minbizi zelulen hedapenean, metabolismoan, zatiketa zelularrean eta ugalketan eragiten dute. Hala ere, farmako hauen inespezifikotasunak minbizi zelulengan eragina izateaz gain, gure gorputzeko beste zelula osasuntsuentzat kaltegarria izatea eragiten du; giltzurrun, urdail, heste, azal alterazioak, zein alterazio hematopoietikoak eraginez (1),(2),(3),(4),(5),(6).

Farmako zitostatikoen erabilera 1942an hasi zen, bigarren mundu gerran J.M. Robsonek eta Carlota Averbach-ek anemia aplasikoa pairatzen zuten soldaduei gas mostaza eman ostean beren egoera hobetu zela ikusi eta gero Hodgkin-en gaixotasunaren tratamendurako erabiltzen hasi zenean (7),(8).

Azken urteetan droga hauek minbizi asaldurak tratatzeaz gain, beste asaldurak ere tratatzeko erabiltzen hasi dira. Bestaldetik, tratamendu antineoplasiko berri asko sartzen hasi dira gure osasun sistemen barruan eta ondorioz, hauen administrazioa maizago ematen da (4),(9). Beren prestakuntza gero eta zentralizatuagoa da eta minbiziaren kontrako farmakoak ospitaleetako farmaziako unitateetan prestatu arren, erizainek medikamentu hauekiko esposizioa aurkezten jarraitzen dute pazienteei administratzerako orduan (5),(10).

Antineoplasikoak osasun-zerbitzuko minbiziaren aurkako erregimenen alderdi garrantzitsuak dira eta hauen arrisku okupazionalak ezagunak dira 1970tik (7). 1976an lan giroko farmako zitostatikoen esposizioari buruzko lehen argitarapena izan zen, non *Falck et al.* esposizioaren eta osasun arazoaren arteko erlazioari buruzko ikerkuntza egin zuen. Honetan, zitostatikoekin lan egiten zuten erizainen taldeak, kontrol taldearen aurrean mutagenikotasun handiagoa erakutsi zuten eta horrek, toxiko hauen aurrean egoteak sor zitzakeen ondorioei buruzko kezka eragin zuen (1),(8). 2019tik droga zitotoxikoen arriskua hainbat erakunde eta agentzia europarrentatik onartua da eta bestetik, *Minbiziaren ikerkuntzako nazioarteko agentziak* gaixotasun onkologikoetan erabiltzen diren hainbat farmako kartzinogeno, mutageniko eta ugalketarako toxiko bezala sailkatu ditu (1) .

Agente hauen erabileraren handipenak farmazeutikoen, fisikoen eta erizainen kezka handitzea eragin du, droga hauek maneiatzeak berarekin dakartzan efektu kaltegarriak direla eta. Izan ere,

farmako hauek bere efektu sendagarriez gain, minbizidunak ez diren zelulak kaltetu ditzakete eta gorputzean oso albo ondorio bortitzak zein hilgarriak izatera heldu daitezke (10).

Profesionalengan arriskua eragiten dute

Azken lau hamarkadetan aurrerapen nabarmenak egon dira droga hauen esposizio okupazionalarekin erlazionatutako osasun ondorioen ezagutzen gain, bai epe motz (azal, mukosa zein asaldura sistemikoak), luze (mutagenikoak, teratogenikoak, kartzinogenoak) zein ugalketan eragiten dituzten efektu toxikoen inguruan. Bestetik hainbat ikerketek zitostatikoen presentzia aurkitu dute osasun inguruko hainbat superfizietan, zein langileen eskuetan (11),(12).

Azterlan desberdinek (*Lawson, 2012; Hannafi et al., 2016*) droga hauen esposizioaren ondorioz azal alterazioak, eztarri mindua, eztul kronikoa, zorabioak, zefalea, ile-galera, hileko irregularrak, anemia, glukosa maila altuak, tiroideko alterazioak, antzutasuna edota jaiotza akatsak ematen direla adierazi zuten (13).

Bat bateko abortuak bi aldiz gehiago ematen direla ikusi da zitostatikoen esposizioa izan duten erizainengan, esposizioa izan ez dutenetan baino (3),(5),(13). Hortaz gainera, emakumezkoen ugalketari buruzko hainbat ikerketek adierazi dute droga hauekin kontaktua izan duten emakumeek antzutasuna, erditzean zailtasunak, eta haurdunaldian zehar hainbat konplikazio pairatzen dituztela (1),(14).

Zitostatikoekin kontaktuan egoteak ere minbizia pairatzeko arriskua areagotzen du, zehazki, onkologiako unitatean lan egiten duten erizainen artean leuzemia, beste minbiziak, DNA asaldurak eta anormaltasun kromosomikoak garatzeko arriskua handiagoa da(2),(3),(6),(9),(14).

Lan ingurugiroko kontaminazio eta langileen esposizioa

Kausak ekiditeko premiaz, azken 20 urteetan hainbat segurtasun arau izan dira atera dituztenak zerbitzu medikoetako langileak beren lan postuetan babesteko. ASHP-k (American Society of Health System Pharmacist) eta ISOPP-k (International Society of Oncology Pharmacy Practitioners) hainbat gida argitaratu dituzte zitostatikoen maneiurako egokia lortzeko. Hauetan, farmakoak prestatzeko zein botatzeko eta beren maneiurako segurtasun jantziei buruzko pautak

eman dituzte eta, egia esanda, esposizioa asko murriztu dute; batik bat, inhalazio bidezko kontaminazioari dagokionez. Lehen esan bezala, zitostatikoen prestaketa zentralizatu egin da ospitaleetako farmazia unitatetan, barne kamerak egin dira, eskularru bikoitzak, babes jantziak edota babes praktika klinikoko teknikak sortu dira. Hau da, langileen esposizioa murrizteko hainbat jarraibide martxan jarri dira. Hala ere, neurri hauek ez dira beti aurrera eramaten eta kontaminazio hori gutxitu izan arren oraindik ere presente dago osasun ingurugiroan (5),(10). Aditzera, hainbat ikerketa izan dira lan giroan botika hauen presentzia aurkitu dituztenak, eta beste hainbestek farmako antineoplasikoak osasun langileen eskuetan badaudela aurkitu dute.

Agente zitostatikoekiko intzidentziak edozein puntutan eman daitezke eta hauen kausak anitzak dira; farmako aerosol edo mikrotanten inhalazioa, azal zeharreko kontaktua izatea zitostatikoen prestakuntzan, estrabasazio edo isurketak egotea administrazio prozesuan, exkretakin kontaktua, lan ingurugiroko objektuen kontaktu zuzena edo segurtasun ekipoak kontenedore desegokietara botatzea (10).

Urtean zortzi millioi osasun langile kimioterapiarekiko esposizioan daudela estimatzen da, erizainak eta farmazeutikoak esposizioaren eragin handiena jasotzen duten taldea izanik, eta nahiz eta pazienteek baino dosi txikiagotara aurkeztu, hauek oraindik ere osasun arazoak eragin ditzakete (8),(9),(12).

Hori gutxi balitz, *Frasman et al., 2007; Hon et al., 2015 edo Frantzian* (INRS; French National Research and Safety Institute for the Prevention of Occupational Accidents and Diseases) egindako ikerketetan zitostatikoak langileen odol zein gernu analisisetan aurkitu zituzten, non langileen gernu laginen %50a baino gehiago kutsatuta aurkitu zen (3),(5).

Gida kliniko eta direktzizeak

Kimioterapia maneiitzen dituzten osasun profesionalengan bio-markatzaile genotoxikoen maiztasunaren handipena dagoela baieztatuta dago gaur egun (2). 1970an farmako zitostatikoekiko esposizioa eta osasun langileengan eragin zitzakeen arriskuak segurtasunerako kezka bihurtu zen lehen aldiz. Momentu horretatik OSHA (Occupational Safety and Health Administration), NIH (National Institute of Health), NSCEE (National Study Comision on

Cytotoxic Exposure), AMA (American Medical Association) eta NIOSH (National Institute for Occupational Safety and Health) bezalako estatu batuetako organizazioek hainbat informe argitaratu dituzte farmako arriskutsuen maneiu seguruaren inguruan. Direktziorik haurtako asko, gaur egun legetzat hartzen dira eta hauen jarraipena eta betetzea instituzio gubernamentalen betebeharren barnean sartzen da (15).

Gaur eguneko egoera

Europa eta Espainia mailan hainbat dira zitostatikoen maneiorako estandar konkretuak jarraitzea ezartzen dituzten lege, real dekretu eta lan ministeritzako nota teknikoak; haien artean *Zuzendaritza Europarreko 2004/37/EC, 665/1997 eta 374/2001 Errege dekretuak, INSSTko gidak edota Lanpostuetako higiene eta segurtasun institutuko nazionalerako 1.134-1.051 prebentzio nota teknikoak*. Haurtan, osasun langileak babesteko, eta hauek kartzinogenoen aurrean daukaten esposizioa determinatzeko kontrol biologikoak izendatzen dira. Osasun profesionalen enpresek agente mutagenikoen aurrean esposizioa jasaten duten langileei osasun kontrolak pasatzera derrigortuta daude medikamentuen aurrean jasaten duten denboraren arabera, denbora gehien ematen dutenei kontrolak maiztasun handiagoarekin egiteko beharra izanik. Bestetik, kontrolatan profesional bakoitzaren aurrekari medikoen laburpena, entrebista pertsonala, eta kontrol biologikoa (odol eta gerneru analisi bidez) egin beharko litzateke zitostatikoen presentzia detektatzeko (15),(16),(17),(18),(19).

Biztanleria gero eta zaharragoa da eta adinarekin minbizia arriskua igotzen dela argi dago. Hamar urteen epean minbizia pairatuko duten pertsonen kopurua handituko da, eta ondorioz agente hauen aurrean esposizioan dauden profesionalen kopurua ere OMS-ek (Organización mundial de la Salud) aurkeztu duenaren arabera. Bestetik, gaur egun dagoen profesionalen lan karga, pertsonal eskasia eta ospitaleek aplikatzen dituzten kostu zein errekurtsu murrizketek albondorioak garatzeko aukerak areagotzen ari dituzte (20). *Ladeira et al.* 2012an Portugalen aurrera eramandako ikerketaren arabera droga zitostatikoak maneiatzen dituzten osasun profesionalak banakako zein taldeko babes neurriak erabili arren lan-giroko kontaminazioa posiblea izaten jarraitzen du eta erabilitako neurriak nahikoak ez izatea gerta daiteke. Hau da, zitostatikoen askapena osasun ingurugiroan ematen jarraitzen du, nahiz eta gidak edota segurtasun neurriak aurrera eraman (8),(10),(21).

Hala ere, gaur egun oraindik ere ez dago argi zein den esposizio horren zergatia. Eskularruak bezalako segurtasun neurriak jartzearen kontzientziario falta edota osasun heziketa bezalako faktore sistemikoak izan daitezke (10).

Neurri hauekiko atxikipen falta dagoela argi dago, *Elsaheer*-ek 2017an Egipton aurrera eramandako ikerketak adierazten zuen. Erizainek, profesional farmazeutikoekin konparatuta askoz gutxiago atxikitzen ziren segurtasun neurrien erabilerara, erizainen %78,2ak eskularru bikoitzak ez zituzten erabiltzen eta %36,4-%29,1 artean soilik adierazi zuen maskarila eta eskularru bikoitzak erabiltzen zituela (22). Bestetik, AEBko (Ameriketako Estatu Batuak) beste ikerkuntza batean, erizainen %56ak adierazi zuen ez zuela inolako segurtasun neurririk erabili beren lanpostuetan antineoplasikoen maneirako eta %6ak bakarrik jaso zuela formakuntza farmakoen erabileraren inguruan (13).

Guzti hau administrazio prozesuan ematen diren neurrien hobekuntza eta erizainen artean genotoxikoen arriskuaren garrantziaren kontzientziarioa hobetu behar delaren indikatzaile argia da. Arrisku huen prebentzioa osasun profesionalek ebidentzia gaurkotuan oinarritutako gidak jarraituz lan egitea eskatzen du, praktika hobereena eta erizain zein pazienteen segurtasuna bermatzeko (13),(23),(24).

Osasun profesionalek formakuntza teoriko eta esperientzia asistentzial maila altua izan behar dute zitostatikoen maneiu egokia egiteko; horretarako antineoplasiko bakoitzaren inguruko albondorioen ezagutza eta kontaminazioa ekiditeko segurtasun neurriak aplikatzen jakitea izango litzateke helburu nagusia, minbizidun pazienteen zainketa hoberenak lortuz eta medikazio mota horiekin lan egiterakoan egon daitezkeen arriskua ahalik eta gehien murriztuz (25),(26).

Argi dago gaur egun erizainek osasun hezkuntza falta dutela arlo honen inguruan eta aplikatzen ari diren segurtasun neurriak ez direla uste bezain eraginkorrak. Lan honen bitartez, farmako hauen esposizioa eragiten duten istripuen zergatiak eta hauek saihesteko dauden segurtasun neurriei buruzko gaur egungo literatura errebisioa egingo da; bai neurri hauek eraginkorrak diren aztertzeke, bai onuragarriak izan daitezkeen neurri berriak proposatzeko.

HELBURUA

Helburu orokorra:

Erizaintzako profesionalek farmako zitostatikoak maneiatzerakoan ematen diren intzidentziak eta hauen zergatiak aztertzea, farmako hauek profesionalengan eragiten dituzten efektu zitotoxikoak ekiditeko dauden segurtasun neurriak eta hauekiko atxikipena analizatzearekin batera.

METODOLOGIA

Gradu amaierako lan honen helburuari erantzuna emateko literatura errebisio kritikoa aurrera eramán da.

BILAKETA PROZESUA

Bilaketarekin hasi aurretik, helburu orokorra kontuan izanda lau hitz gako bereiztu dira; **farmako zitostatikoak, erizainak, efektu zitotoxikoak** eta **segurtasun neurriak**. Ondoren, hitz hauek ingelesera itzuli eta hauen sinonimoak zerrendatu dira. Hitzak gazteleratik ingelesera itzultzeko DeCS aplikazioa kontsultatu da eta sinonimoen zerrenda osatzeko berriz, MeSH (Medical Subject Headings) lexiko kontrolatuen hiztegia erabili da. Horrez gain, hitz gakoak itzultzeko zein sinonimo gehiago lortzeko artíkulu ezberdinetako hitz gakoak aztertu dira, datu baseetako bilaketa errazteko eta informazio zabalagoa lortzeko asmoz. Behin puntu honetara helduta, datu base bakoitzaren deskriptoreen hitz gako egokiak finkatu dira. **(1. Eranskina: Kontzeptu-taula)**

Ondoren lau hitz gakoak eta sinonimoak kontuan izanda, konbinazio desberdinak eginez ekuazio ezberdinak eraiki dira. Datu base bakoitzean eraikitako lehen ekuazioan lortutako emaitzen arabera, ondoren burutu direnak, sinonimo edota hitz gako gehiago edo gutxiago erabilita eraiki dira, artíkuluaren bilaketa zehatz edo zabalagoak lortu ahal izateko.

Errebisio bibliografiko honen helburuari erantzuna emateko, bibliografia bilatzeko hurrengo datu baseak erabiliak izan dira; Medline (OVID), Cinhal, Cuiden eta Cochrane. Datu base hauetara sartzeko Osakidetzako My Athenms plataforma digitala edo Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) web orrialdea erabili ziren. Eskuzko bilaketa ere aurrera eramán zen, Osakidetza eta UPVko liburutegira suskribatutako editorial elektronikoak erabiliz.

Kontsultatutako editorialei dagokienez Elsevier (DOYMA) aurkitzen da. Bestetik, ebidentzia gaurkotuan oinarritutako NICE plataforman ere bilaketak egin dira. Gaiari buruz hainbat artíkulu argitaratu dituzten erakundeen gida kliniko, protokolo eta publikazioak analizatu dira, hala nola, Oncology Nursing Society (ONS) eta Osakidetza web gune ofizialean argitaratutakoak. **(2. Eranskina: Bilaketa prozesua)**

Artikuluak lantzerako orduan, zenbait artikuluren bibliografia gainbegiratu ondoren, kalitatezko artikulua interesgarri solte batzuk ere landu dira.

BARNERATZE ETA KANPORATZE IRIZPIDEAK

Datu baseetako bilaketa prozesua errazteko eta espezifikoa izateko barneratze eta kanporatze irizpide zehatz batzuk definitu ziren.

BARNERATZE IRIZPIDEAK

Argitarapen data: Artikuluen argitalpen datari 10 urteko epea jarri zaio; 2009tik 2019 arte.

Argitaratutako artikulua motak: Informazioa lehen mailako (aldizkariak) eta bigarren mailako iturrietatik (datu baseak) lotu da, aurkitutako informazio guztia ebidentzia maila altukoa izan dadin. Aurretik aipatutako iturrietan artikulua aurkitzeaz gain, praktika klinikoko gidak eta protokoloak ere birpasatu dira. Eskuzko bilaketak ere burutu dira zenbait aldizkaritan. Onartutako eta erabilitako bibliografia, berrikusketa sistematikoak, berrikusketa bibliografikoak, meta analisiak, entsegu klinikoak eta gainerako ikerketa kuantitatiboak dira. Bestalde Espainia mailan gaur egun ezarrita dauden legeak, protokoloak, gida klinikoak eta Ministeritzaren prebentzio nota teknikoak ere erabili dira.

Argitalpen hizkuntza: Gazteleraz, ingelesez eta euskeraz dauden artikulua onartu dira.

Ikerkuntza gaia eta parte hartzaileak: Ikerkuntzetako parte hartzaileak beren lan-giroan agente zitostatikoekin maneiatzen diren erizainak izan behar dira, edozein adinakoak izan daitezke eta herrialde garatueta osasun sistematikoki aktiboki lan egin behar dute. Egia da hainbat artikuluetan erizainak ez diren osasun profesionalak barne hartzen dituztela euren ikerkuntzetan, hala ere, erizainek dituzten jarrerari eta aurrera eramaten dituzten ekintzei buruzko datuak eskaintzen dituztenez hauek ere sartu dira.

Gaiari dagokionez hurrengoa deskribatzen duten artikulua sartu dira: zitostatikoen esposizioa noiz eta haien erabileraren zein ziklotan ematen den aztertzen dutenak, zitostatikoen maneiua

egokia izateko segurtasun neurriak aztertzen dituztenak, zitostatikoekin ematen diren intzidentzien zergatia aztertzen dutenak, zitostatikoen maneirako segurtasun neurrien atxikipen falta aztertzen dutenak, zitostatikoen maneirako segurtasun neurrien atxikipen faltaren zergatia aztertzen dutenak, zitostatikoen segurtasun neurriei atxikitzeke orduan osasun hezkuntzaren garrantzia aztertu dutenak eta zitostatikoen maneian ematen diren konplikazioei buruzko azterketak egin dituztenak.

KANPORATZE IRIZPIDEAK

Argitalpen data: Ez dira onartuko 2009. urtearen aurretik egon diren publikazioak.

Argitaratutako artikuluko motak: Baztertuak izan dira gutunak, iritzi artikulak, editorialak, tesiak, liburuak, ikerkuntza pilotuak eta literatura grisa; hala nola, posterrak, konferentzia aktak zein tesi doktoralak, lortutako informazioa fidagarria eta ebidentzia zientifikoan oinarritutakoa izan dadin. Bestalde, ez dira hartu herrialde azpigaratuetan aurrera eramandako ikerketak, alde batetik osasun sistemak nahiko atzeratuak daudelako gaur egun garatuta dauden herrialdeekin konparatuz eta European aplikatzen diren neurri asko oraindik ez dituztelako abian jarri, sortzen diren intzidentzien prebalentzia eta intzidentziak askoz handiagoak izanik.

Argitalpen hizkuntza: Menperatzen ez diren hizkuntza batean argitaratutako artikulak baztertu egin dira, hau da, euskaraz, gaztelaniaz, edo ingelesez idatzita ez daudenak.

Ikerkuntza gaia eta parte hartzaileak: Ez da sartuko erizainak ez diren eta zitostatikoekin lanik egiten ez duten osasun profesionalei soilik hitz egiten duten artikulak.

Ez dira sartu hurrengo gaiak lantzen dituzten artikulak:

- Zitostatikoen esposizioak osasun arloko langileen osasunean eragiten dituen efektu toxikoei buruz hitz egiten dutenak marko teorikoan aurretik landu direlako.
- Antineoplasikoek pazienteengan dituzten albondorioei buruz hitz egiten dutenak, lana erizainengan fokalizatuta dagoelako eta ez pazienteengan.

- Farmazeutikoek zitostatikoen prestakuntzan izan ditzaketen arrisku eta segurtasun neurriei buruz soilik hitz egiten dutenak, gure helburua erizainek aurrera eraman beharreko segurtasun neurriei buruzko delako.
- Zitostatikoek farmaziako langileengan dituzten albondorioei buruz hitz egiten dutenak, lehen esan den bezala, erizainengan eman daitezkeen albondorioak bilatu nahi direlako.
- Antigorputz monoklonalen manei edota antineoplasiko konkretu bati buruzko arrisku eta maneiari buruz hitz egiten dutenak, alde batetik helburua antineoplasikoen maneiarekin erlazionatuta dagoelako eta bestetik zitostatiko bakoitzaren manei espezifikuari buruz hitz egiteak lana asko luzatuko duelako.
- Lan ingurugiroko azaleraren kontaminazioa baloratzeko teknikei buruz soilik hitz egiten duten artikuluak, lanaren helburua antineoplasikoen esposizio arriskua eragiten duten egoerak identifikatu nahi direlako eta ez farmakoen presentzia baloratzeko erremintak.
- Farmakoen prestakuntzarako kabina biologiko sistema itxiei buruz soilik hitz egiten dutenak, Euskadiko osasun sisteman jada hauek erabiltzen direlako segurtasun neurri bezala.

Artikuluaren eskuragarritasuna: Bilatutako artikuluaren testu osoa lortzea posible izan ez den kasuan, artikuluak deuseztatu dira.

ARTIKULUEN AUKERAKETA

Orain aipatutako kanporatze zein barneratze irizpideak kontuan hartuz, aukeraketa kritikoko prozesu bat ezarri zitzaion. Guztira 1.220 artikulu aurkitu egin ziren aukeratutako datu base guztiak aztertu ostean eta 4 lortu ziren esku bilaketaren bitartez, non Osakidetzako protokolo bat, praktika klinikoko gida bat, National Health Institute of Safe Handling erakundeak argitaratuta zitostatikoen manei segururako neurriak barne hartzen dituen liburua eta errebisio bibliografiko bat aurkitzen diren. Azkenik, artikuluaren irakurketa osoa eta bibliografia kontsultatu ostean, artikuluetatik ateratako 3 erreferentzia berri gehitu ziren.

Datu baseetan aurkitutako artikuluari dagokionez, hamar urteko filtroa ezarri ostean eta titulua zein laburpena irakurri eta gero 1077 artikulu kanporatu egin ziren, 613 helburuari atxikitzen ez zirelako eta 464 urte epearen barne ez zeudelako. Ondoren 7 artikulu kanporatu egin ziren ez

zeudelako ez gaztelaniaz ez ingelesez eta 69 errepikatuta zeudelako; hortaz 67 artikulurekin geratu nintzen. Ondoren, hautaketa kritikoaren bigarren fasea abiarazi nuen; baseetako 67 artikuluetatik, 65ren testu osoa lortu nuen eta hauei eskuzko bilaketatik 4 artikulua berri gehitu nizkion; 3 Elsevier Doymatik eta 1 Osakidetzako web orrialdeko protokoloetatik. Bestetik, lana aberasteko helburuarekin, gaiaren inguruko argitarapenak dituen Oncology Nursing Society (ONS) erakundean bilaketa egin zen, hortik gida kliniko bat eta errebisio bibliografiko bat lortuz. Hortaz, 71 artikuluren testu osoak lortu nituen.

Lortutako bibliografiarekin hautaketa kritikoaren 3^o fasea hasi zen, hau da, irakurketa kritikoaren prozesua ezarri zitzaion. Datu baseetatik lortutako eta testu osoa eskuragarri zuten 65 artikulua, eskuzko bilaketaren bidez lortutako 6 artikuluekin batera analizatu ziren. Hautatutako 71 artikuluetatik, 29 kanporatu ziren lehenengo irakurketa osoa egin ostean lanaren helburuaren barneratze irizpideak ez zituztelako betetzen eta lanerako informazio aberasgarria ez zutelako eskaintzen eta 6 ez zituztelako hasiera batean ezarritako artikuluen tipologiaren barneratze irizpideak betetzen. Azkenik 36 artikulua geratu ziren hautaketaren hirugarren faserako. Horietatik, 25ri analisi kritikoaren gidoia pasa zitzaion ikerketa kuantitatiboak izateagatik eta 7 kanporatuak izan ziren honen irizpideak ez betetzeagatik (**3. Eranskina: Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritiko garatua**). Hau guztia esanda, errebisio bibliografiarako 29 artikulua lortu ziren. Azkenik beste artikuluen bibliografiatik 3 erreferentzia berri gehitu ziren, guztira 32 artikulua geratuz. Bukatzeko, Onkologiako eta eguneko ospitale medikoetako gainbegiraleekin kontaktuan jarri nintzen gaiari buruzko gida kliniko, protokolo eta legislatura gehiago lortzeko helburuarekin, eta beraiekin hitz egin ostean, errebisiorako baliagarriak izango ziren 8 artikulua berri eskuratu nituen, guztira 40 erreferentzia lortuz. (**4. Eranskina: Fluxu-diagrama**)

Hautatutako 40 artikuluen analisia 2 etapetan banatu zen. Lehenengo etapa pre-analisi batean oinarritzen zen non testu bakoitzean lantzen ziren gaien inguruko ideia orokor bat lortu nahi zen. Horretarako, laburpen-taula bat eraiki zen non errebisatutako bibliografiaren datu garrantzitsuenak idatzi ziren (**5. eranskina: Kontsultatutako literaturaren laburpen-taula**). Bigarren etapan analisi sakonago bat egin zen, artikuluetan lantzen den informazioa barneratzeko eta kategorizatzeke. Zuhaitz kategorial bat eraiki zen laguntza erreminta bezala analisi sakonagoa lortzeko. (**6. Eranskina: zuhaitz kategoriala**)

Hautatutako artikuluek eskaintzen zuten informazioen analisi zein interpretazio prozesuaren ostean lortutako datuen analisia egiteari ekin zitzaion.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Intzidentziak

Zitostatikoen maneiuren edozein fasetan eman daizteke intzidentziak; prestakuntzan, manufakturazioan, paketatzean, banaketan, administrazioan edota deuseztatzean. Jarduera horietan parte hartzen duten profesional guztiak esposizio okupazionala izatera arriskutzen dira eta kutsadura eragin dezaketen hainbat bide jada ezagunak dira gaur egun (27),(28),(29).

-Inhalazio eta ingestioa: Larruazal bidezko kontaktuarekin batera, inhalazio bidezko kutsadura osasun lan ingurugiroan gehien ematen den esposizio mota da (19). Orokorrean bialak edo anpoilak irekitzerakoan, xiringak bialetatik ateratzerakoan, administrazio ekipoak purgatzerakoan edota pilulak apurtzerakoan eman daiteke (28),(29),(30). Ingestio bideari dagokionez, kontaminatutako azalera bat ukitu ostean elikagai zein likidoak hartzerakoan edo tabakoa erretzerakoan emango da, hala ere, gutxien ematen den bidea da(31). *Sessink PJ et al.* 2015ean aurrera eramandako ikerkuntzan, zitostatikoak gordetzeko erabiltzen diren poltsetan egon zitekeen farmakoen kutsadura neurtu eta hauetan antineoplasikoen agerpena hauteman zen (1).

- Larruazal edo mukosa bidezko absortzioa: farmakoarekin, pazientearen exkretekin edo zitostatikoen hondakinekin kontaktu zuzena izateagatik gerta daiteke eta lan inguruan gehien ematen den esposizio modua da (19),(28). Kontaktua anpoilak eta bialak ireki zein apurtzerakoan, farmakoen diluzioak prestatzerakoan, xiringak kargatzerakoan, farmakoak barnean daramatzaten poltsak apurtzerakoan, pazienteekin kontaktu zuzena izaterakoan (exkretak, izerdia, fluido biologikoak, arropak, ohea), estrabasazio eta isurketetan erori diren farmakoak garbitzerakoan, farmakoen garraiorako erabiltzen diren poltsak maneiatzerakoan edota kontaminatutako azalera ukitzerakoan eman daiteke (32).

Eranskinetako 1. eta 2. tauletan, ikerketa desberdinetan emandako emaitzak bateratu eta zitostatikoen enbase desberdinetan aurkitu den kontaminazioa adierazten da, segurtasun neurri egokiak erabiltzearen garrantzia azpimarratzen du (31),(32).

-Bide parenterala: Nahigabezko inokulazioen, ebaketa eta ziztaden ondorioz ematen da, farmakoa gure gorputzean zuzenean sartzen denean (32).

Azken hamarkadan, bai Espainia zein Estatu Batuetan hainbat erakundek gida desberdinak argitaratu dituzte antineoplasikoen maneiuo fase bakoitzean kutsadura eragin ditzaketen jarduerak zerrendatuz. Gaurkotuen artean USPk (United States Pharmacopeia) 2017an ateratakoa da, eranskinetako 3. taulan adierazten dena (15),(33).

Nahiz eta gida kliniko, protokolo edota segurtasun neurri berriak sortu, gaur egun ere intzidentzia hauek gertatzen jarraitzen dute eta hainbat ikerketa egin dira istripuen prebalentzia aztertzeko. *Kopjar et al.* egindako azterlanean maiztasun handiena izan zuen intzidentzia zitostatikoen isurketa izan zen %38ko portzentajearekin, ondoren %27an poltsa edo farmakoak administratzeko sistemen fugak, %14an farmakoak barnean dauzkaten botila edo poltsen apurketak eta azkenengo postuan, %14an farmakoak dauzkaten xiringen orratzekin izandako ziztadak (34).

Alehashem edota *Rizalar* egindakoetan erizainen %82ak antineoplasikoekin intzidentziaren bat jasan zuen. Horietatik, %48a isurketak izan ziren (30), %11 larruazal bidezko kontaktu zuzena izan ziren (aho bidezko edo zain barneko zitostatikoak maneiatzerakoan; pilulak apurtu edota sistemak purgatzekoan) eta %6ak zitostatikoak zeuzkaten orratzekin ziztada jaso zuen (35). Orokorrean, erizainek larruazal bidezko kontaktu zuzenaren ondoriozko intzidentzien prebalentzia astean batekoa zela ikusi zuten (36).

Esposizio okupazionalaren eta intzidentzien eragileak

Esposizio okupazionala eragin dezaketen jarduerak aurrera eramatearen prediktoreak daudela aztertu da. Antineoplasikoen maneian denbora gehiago ematea, esposizioa jasateko arrisku handiagoa izatearekin erlazionatzen da. Kontran, babes neurriak aurrera eramateko denbora nahiko izatea, ingeniariak kontrolak, praktika kliniko egokiak ezarrita izatea eta babes ekipo pertsonalak eskuragarri zeudela jakitea intzidentzia gutxiago izatearekin erlazionatuta dago (37).

Ezinbestekoa da lan ingurugiro segurua eskaintzea langileen segurtasuna bermatzeko eta kimioterapia praktika kliniko egokiekin administratzeko (13). Hala ere, gaur egun nahiz eta praktika kliniko zein lan ingurugiroko protokoloak eta jarraipen dokumentuak argitaratuta egon intzidentziak gertatzen jarraitzen dute eta hainbat dira hauen agerpenean eragina duten faktoreak, hala nola:

1. Osasun hezkuntza falta; farmakoen maneian aurrera eramaten diren segurtasun neurrien, erabili beharreko babes ekipo pertsonalen, ezarrita dauden praktika klinikoen edota farmako arriskutsuekin istripuak daudenean aurrera jarraitu beharreko pausoen inguruan.
2. Lan inguruko kontaminazioa eta bertako azalaren esposizioa kontrolatzeko ingeniari-tza kontrol eza.
3. Osasun profesionalen esposizioa monitorizatzeko kontrol biologikoak ez egotea.
4. Manipulatu diren farmakoekiko esposizio kantitatea eta iraupena (15).

Osasun profesionalak droga arriskutsuekiko esposizio okupazionala murrizten duten segurtasun protokoloak jarraitzen ez direla adierazten ohi da hainbat ikerketetan eta honen eragile nagusietako bat erizainek gida klinikoen inguruan duten osasun hezkuntza falta da (36).

Azken hamarkan egindako azterlanetan erizainen erdiak zitostatikoen manipulazioaren praktika klinikoen inguruko prestakuntza jaso ez dutela aurkitu da. Hauen artean, *Chun Yip-Hon* egindakoan, erizainen %69,7ak bakarrik jaso zuen hezkuntza farmako zitostatikoen maneian buruz, eta hori gutxi balitz, arlo honen inguruan hezkuntza gehien jasotzen zuten profesionalak farmazeutikoak izan ziren (%75) (38). Desberdintasun nahiko aurkitu da erizain zein farmazia teknikariek euren unitateetan antineoplasikoen maneian inguruan jasotzen duten formakuntzari dagokionez. *Elsaheer*-en ikerketan, erizainen %13,5ak eta farmazeutikoen %66,7ak ($p=0,00$) jaso zuen osasun hezkuntza zitostatikoek osasunean eragin zitzaketan ondorioen eta bere maneian seguruaren inguruan. Bestetik, farmazeutikoen %72,2ak eta erizainen %8,1ak ($p=0,01$) bazekiten identifikatzen zeintzuk ziren antineoplasikoen eliminaziorako egokiak ziren kontenedoreak. Farmazeutikoen portzentaje handiago batek adierazi zuen bazekiela zeintzuk ziren jarraitu beharreko pausoak antineoplasikoen isurketak zeudenean (farmazeutikoen %83,3 eta erizainen %18,9; $p=0,00$). Farmazia teknikari guztiek eskularru pare bakarra erabiltzen zuten farmako hauen maneian eta erizainen %67,9ak bakarrik onartu zuen hura. Bestetik teknikari gehienek amantalak (%94,4) eta mozorroak (%72,2)

erabiltzen zituzten erizainek baino maiztasun handiagoarekin (erizainen %8,1ak erabiltzen zituen bi neurriak), estatistikoki esanguratsua den desberdintasuna sortuz ($p=0.00$) (22). (Taula 4)

Ikus daitekenez osasun hezkuntza ezak babes neurri pertsonalak aurrera ez eramatera eta intzidentziak maiztasun handiagoarekin izateko arriskua izatera garamatza.

Boiano et al., 2014an praktika seguruekiko atxikipena eta babes ekipo pertsonalen erabilera aztertu zuen, 2.069 pertsonako inkesta baten bitartez, laginaren %98a erizainak izanik. %85ak kimioterapiarako eskularruak janzten zituen eta %58ak bata iragazgaitzak. Antzeko emaitzak eman ziren *David J. Deyoy* egindakoan, non erizainen %87ak beti erabiltzen zituen kimioterapiarentzako eskularruak antineoplasikoak administratzerakoan. Hala ere, %20ak bakarrik eskularru bikoitzak erabiltzen zituen, eta %20ak ez zituen inoiz erabiltzen. Langileen %59a bata iragazgaitzak beti erabiltzen zituen eta %11ak soilik begiak babesteko betaurrekoak edota maskara (39).

Silver-ek eta *Steeger*-k egindakoan, erizain gehienek adierazi zuten eskularruak erabiltzen zituztela kimioterapia maneiaterakoan (%87,1), hala ere, %23ak bakarrik erabiltzen zituen eskularru bikoitzak. Profesionalen %65,1ek bata iragazgaitzak erabiltzen zituen eta %14ak bakarrik erabiltzen zituen babes maskarak zein betaurrekoak zitostatiko likidoak administratzerakoan. Antzeko emaitzak aurkitzen dira beste hainbatetan (37).

Bestalde, OSHA-ren gomendioen artean 12 hilabete behin osasun hezkuntza eskaintzea dago. Azken finean osasun hezkuntzaren jarraipen eza, praktika klinikoaren inguruko kezka falta eta gida klinikoek esaten dutenaren ezagutza falta eragiten duelako (2),(37). Gainera, erizain portzentaje handi batek droga antineoplasikoaren maneiaren inguruko osasun hezkuntza gehiago jasotzea gustatuko litzaiokeela adierazten du (40).

Esposizio okupazionala eragin zitzaketen ekintza nagusiak eta beren prebalentzia *Boianok* eta *Silverrek* erizainei pasatako inkestan aztertu zituzten, non erizainek hurrengo ekintzak aitortu zituzten (35),(37):

- Kimioterapia gordetzeko farmaziatik datorren poltsa ukitu ostean pazienteen oheak ukitzea zitostatikoak administratzeko eskularruak jantzita zeuden bitartean (%65,5) (37).

- Erizanek zitostatikoak maneiatu ostean, eskularruak jantzita izanda boligrafo, arkatzak erabiltzea (%27,2) (37).
- Antineoplasikoak maneiatzeko erabili diren eskularruekin atek ukitzea (%20) (37).
- Ordenagailuaren arratoia, monitoreak edota kalkulagailuak ukitzea eskularruak oraindik jantzita daudela (%12,6) (37).
- Eskuak ez garbitzea zitostatikoak maneiatu eta eskularruak kendu ostean (%16) (35).
- Eskularruak ez aldatzea kontaminazioa, estrabasazio edo isurketak egon direnean (%3) (35).
- Batak behin erabilia ez aldatzea (%48) (35).
- Etxera laneko arropa eramatea garbitzeko (%9) (35).

Zitostatikoak maneiatzeko erabili diren eskularruekin gehien ukitzen diren azalerak pazienteen logela zein administrazioa prestatzeko guneak direla ikusi da (ohea, deuseztatze kontenedorea, boligrafo, arkatzak, atek, pizarrak, ordenagailuak, arratoia...). Emaitza hauek adierazi dezakete lan karga gehiegi eta denbora gutxi izateak, erizainek praktika klinikoak modu egoki batean egitea oztopatu dezakeela, ingurugiroko kontaminazioa eraginez. Izan ere, eskularruak oraindik ere erabiltzen ari dira antineoplasikoen maneiuarekin erlasionatutako aktibitate guztiak egin eta gero; 10 erizainetatik 1ek hori egiten zuela adierazi zuen (35).

Silver-rek lortutako emaitzetan adierazten zen bezala, esku garbiketa eza gaur egun ere arazoa izaten jarraitzen du. Antineoplasikoen maneiu prozesuan eskularruak janzteko beharrari eta eskularruak kendu osteko esku garbiketari buruzko hezkuntza indartu behar da. Izan ere, esku garbiketa aurrera ez eramateak zitostatikoen larruazal bidezko xurgapenaren ondoriozko kutsadura dakar nahigabezko ingestarekin batera, eskuak ahoan sartzearen ondorioz (37),(38).

Baieztatuta dago osasun hezkuntzak intzidentziak murrizten dituela. *Won Yong* egindako inkestan (5eko puntuazioaren gainean oinarrituta), formakuntza jaso zuten erizainak hezkuntzarik jaso ez zuten erizainekin konparatu zituzten. Hezkuntza jaso zuten erizainek segurtasun praktiken atxikipen handiagoa adierazten zuten (MEAN \pm SD; 3,46 \pm 0,52 vs 3,18 \pm 0,55; t=3.82; p <0.001) (40). Osasun hezkuntza jarraia jasotzen zuten erizainak prestatuagoak sentitzen ziren droga antineoplasikoak segurtasun praktika egokiekin maneiatzeko eta istripuen aurrean pauso egokiak aurrera eramateko hezkuntza jaso ez zuten erizainekin konparatuz (MEAN \pm SD; 2,48 \pm 0,99 vs 2,13 \pm 0,91; t= 2,55, p=0.011) (39).

Maneiatzen diren farmakoen toxikotasun maila eta esposizio denbora praktika klinikoan atxikipenean eragin zuzena aurkitu zuen ere *Won Young*-ek bere ikerkuntzan. Antineoplasikoak astean behin edo asteko 2-3 egunetan zehar maneiatzen zituztenek segurtasun praktiken atxikipen handiagoa adierazi zuten antineoplasikoak astean 4 egun baino gehiagotan zehar maneiatzen zutenekin konparatuz (MEAN \pm SD; $3,49 \pm 0,47$; $3,61 \pm 0,40$; $3,33 \pm 0,55$; $F=3,15$; $p<0,044$). Bestetik, osasun hezkuntza jaso zutenek arriskuen pertzepzio handiagoa adierazten zuten administrazio prozesuan (MEAN \pm SD; $3,61 \pm 0,43$ eta $3,32 \pm 0,49$; $t=4,47$; $p<0,001$). Droga antineoplasikoaren arriskuen inguruko pertzepzio eta segurtasun praktika klinikoekiko atxikipena estatistikoki erlazio positiboa adierazi zuen ($r=0,558$; $p <0,001$). Hau da, arriskuen inguruko pertzepzio handiagoa izateak segurtasun neurriak aurrera eramatea eragiten du (40).

Langileen esposizioa ekiditeko babes neurriak

Aztertutako hainbat artikulu eta erakundeetako gida klinikoetan, hala nola, ONS, NIOSH, ASHP edota USP argitaratutakoetan, langileek droga arriskutsuekiko duten esposizioa murrizteko 5 metodo desberdin daitezke. Guztiek antineoplasikoekin lan egiten duten profesionalen kontrol eraginkor eta flexibleak ezartzeko eta antineoplasikoaren kontaminazioa ekiditeko helburua dute (41),(42).

1. Ingeniaritza kontrolak

Pertsonak antineoplasikotik isolatzeko baliagarriak dira eta prestakuntza zein administrazio prozesuan esposizioa murrizteko balio dute. Hiru mota desberdin daitezke:

1.1. Primarioak

Drogak nahasten diren kabinak dira. Bentilazio sistema bertikal eta norabide bakarrekoa dute; bestetik, airea efizientzia altuko aire filtroetatik (HEPA) pasatzen dute zitostatikoen partikulak eliminatzeko. Osakidetza 2018an farmako arriskutsuen manipulaziorako eguneratutako protokoloak adierazten du ospitalean dauden kabinak CSB II motakoak direla, hau da, bentilazio sistemadunak eta airea kanpora botatzen dituztenak, gelan presio negatiboa sortuz. Hauek ere HEPA filtroak dauzkate, airearen % 100 filtratu ostean kanporatzea baimentzen dutenak.

NIOSH-en gomendazioetan oinarrituz, droga arriskutsuen manipulazioa bentilazio egokia duen kabinetan egiteak osasun langileak esposizio okupazionaletik babesten ditu. Horregatik aire bentilazioaren eta kabinaren funtzionamendu egokiaren monitorizazio periodikoak egitea segurtasuna bermatzeko ezinbesteko kontrol bezala hartuko dira (19).

1.2. Sekundarioak

Kabinak aurkitzen diren eta unitateetara eraman aurretik zitostatikoak gordetzen diren gelak. Presio negatibozkoak dira, modu horretan zitostatikoen kutsadura kanpora ateratzea saihesten da. Bestetik, airea kanpora ateratzeko eta berriztatzeko bentilazio sistema dute eta eskuak garbitzeko konketa izan beharko lukete (19).

1.3. Ingeniaritza kontrol gehigarriak

Neurri gehigarriek antineoplasikoen administrazioan babes maila handiagoa eskaintzeko balio dute. NIOSH-en gomendioen barne, xiringarik gabeko sistemak, Luer-lock konekzioak eta drogen transferentziarako sistema itxiak barne sartzen dira. Pazientea eta profesionala babesteko baliagarriak dira. Neurri hauek derrigorrezkoak dira farmakoen administrazioan (17),(43),(44).

Honekin erlazionatuta *Bussieres et al.* egindako ikerketan onkologiako unitateetako zein farmaziako lan inguruan laginak hartu zituzten zitostatikoen presentzia aztertzeke. Honetan, laginen %52a ziklofosfamidan, %20a ifosfamidan eta %3a metrotexatoan positibo eman zuten. Ikerkuntza hau izan zen lehena proposatzen lan inguruan egon zitezkeen antineoplasikoen presentziaren neurketa egitea baliagarria izan zitekeela bai osasun profesionalak pairatzen zuten esposizioa detektatzeko eta aurrera eramaten ziren neurrien eraginkortasuna balioztatzeko (1). Azken finean kontaminatutako objektuekin kontaktua izateak zitostatikoekin zuzeneko kontaktua izatera eramaten ditu profesionalak, esposizio bidea irekiz.

Jankowiak et al., Chauchat, Sottani edota *Kiffmeyer* ere berbera aztertu zuten. Honakoetan laginak pazienteen logela eta erizainen kontroletako puntu desberdinetan hartu ziren. Ziklofosfamida, Metotrexatoa, Ifosfamida, Docexatela, Etoposidoa, 5-fluorouraziloa,

Genzitabina eta Paclitaxela bezalako antineoplasikoen presentzia aurkitu zuten (28). *Chauchat*-en ikerkuntzan pazientearen ohe alboan hartutako laginen %81,7a zitostatikoetan positibo eman zuten. Bestalde, ziklofosfamida izan zen gehien aurkitu zena, laginen %36an egonik, ondoren genzitabina eta azkenik 5-fluorouraziloa. Antzeko emaitzak aurkitu zituzten *Kopp et al.*, *Sottani et al.* eta *Kiffmeyer et al.*, non aurkitutako laginen %37 - %30,5 ziklofosfamidan, %14 - %31 5-fluorourazilon eta %32 -%13 genzitinan positibo eman zuten (1),(15),(16),(45).

Erlazio zuzena aurkitu zuten praktika kliniko konkretuen eta lan ingurugiroko esposizioaren artean. Garraiorako sistema itxiak erabiltzea, sistema farmaziatik jada purgatuak izatea, infusio sistemetara konektatuak egotea eta orratzik gabeko xiringak erabiltzea lan inguruko azaleretan aurkitutako zitostatikoen kontzentrazio maila murriztu zuten. Farmakoak garraiatzeko sistema itxien erabilera esposizio arriskua murrizten duela hainbat ikerketengatik baieztatua izan da, haien artean *Miya et al.* 2013an eta *Siguira et al.* 2011n aurrera eramandako ikerketetan antineoplasikoetan lagin positiboa eman zuten azalera kopurua esanguratsuki murriztu zen (6 azaleretatik 4 positibo eman zuten hasieran eta sistema ezarri ostean bakarrik batek). Langileetan gerru analisiak ere egin ziren antineoplasikoen presentzia detektatzeko eta hauek ere esanguratsuki aldatu ziren sistemak aplikatu ostean, erabili aurretik laginen %77,9 positibo ziren eta ostean %6,3 (1).

2. Kontrol administratiboak

Politika eta praktika kliniko egokiak ezartzen dituzte antineoplasikoen maneiorako. Honen barnean osasun hezkuntza eta langileen kontrol mediko periodikoak aurkitzen dira.

2.1. Osasun hezkuntza

NIOSH-en arabera eta lehen esan bezala antineoplasikoak maneiatzen dituzten osasun profesionalek osasun hezkuntza programa jaso beharko lukete bai beren postuan hasterakoan zein urtean behin, batik bat maneiuraren inguruan ezagutzak jasotzeko, intzidentziak ekiditeko eta praktika seguruak aurrera eramateko(35),(36).

Osasun hezkuntza programa egoki batek hurrengo kontrolak barneratu beharko lituzke; kimioterapiaren maneiuak dituen arriskuak deskribatzea, drogen esposizio moduak deskribatzea, gaur egun mundu mailako erakundeek erabiltzen dituzten gida klinikoen laburpena, intzidentzien simulazioak eta kimioterapia maneiatzeko praktika seguruak erakustea (13),(43). 5. Taulan ONS-en arabera osasun hezkuntza programa batek barneratu beharko lituzkeen itemak adierazten dira (46).

Gaur egun, osasun hezkuntza unitate guztietan eskaintzen ez den zerbitzua da. Hainbat ikerkuntzetan, *Constantinidis et al.* egindakoan esaterako, erizainen %54,5-%56 soilik jaso zuen formakuntza formala antineoplasikoen inguruan (47). Honekin batera, gida klinikoei buruzko ezagutza falta handia dago erizainen artean. *Boianok et al.* egindako inkestan, erizainek ezagunak zituzten gida klinikoei buruz galdetzerakoan ONS-ena %73ak ezagutzen zuen, OSHA-rena %47ak, NIOSH-ena %25ak eta ASHP-ena %12ak (2).

Babes metodoen erabileraren atxikipena handiagoa zen osasun profesionalak antineoplasikoen maneiuaren inguruko hezkuntza jasotzen zutenean. Zoritxarrez, erizainen portzentaje handi batek ez du osasun hezkuntza eguneraturik kimioterapiaren manipulazioaren inguruan eta ia bosten batek ez ditu ezagutzen honi buruz hitz egiten duten gidak. *Silver*-ek egindako ikerkuntzan, erizainek ezagutzen zituzten gida klinikoei buruz galdetu zen; %81ak ezagunak zituzten. ONS-en gomendioak %73ak ezagutzen zituen, OSHA-renak %47a, NIOSH-enak %25ak eta ASHP enak %12ak. Bere inkestan antineoplasikoekiko ezagutzaren inguruan lortu zen amaierako puntuazioa 1,8 izan zen, lortu zitekeen gehiengo puntuazioa 2 izanik (37).

Ezagutza falta babes ekipo pertsonalak ez erabiltzearen kausa nagusien artean aurkitzen da. *Crickman*-ek osasun hezkuntzak praktika seguruaren erabileran zeukan eragina aztertu zuen, eta segurtasun neurriei buruzko inkesta bat pasa zien erizainei hezkuntza programaren aurretik eta ostean, inkestan lortu zitekeen puntuazio totala 12 izanda. Interbentzioaren aurrerik batz besteko puntuazioa 10,5 izatetik, hezkuntza jaso osteko puntuazioa 11,2 izatera pasa zen. Hortaz, osasun hezkuntza emateak esposizio potentzialari buruzko ezagutza hobetzen duela esan daiteke (43). *Constantinidis et al.* adierazi zuten osasun langileek antineoplasikoekin zituzten intzidentzia asko ez zirela adierazten droga hauek euren osasunean izan ditzaketan ondorio kaltegarrien inguruan ezagutza falta zutelako. Istripuak ez aitortzeak, intzidentziaren ostean

azalera ondo ez garbitzea eragiten du; hortaz, hezkuntza faltak ingurugiroko kontaminazioa handitzen duela esan daiteke (36).

2.2. Langileen kontrol medikoak

Hauen helburua langileen osasun egoeraren aldaketak identifikatzea da (46).

Profesionalen osasun egoera eta historial medikoaren hasierako azterketa egin beharko litzateke. Aurrekari medikoen balorazioa, azterketa fisikoa eta laborategiko azterketak egingo dira. Hala ere, zitostatikoekin lan egiten duten profesionalen kasuan esposizio aurrekariak ere kontuan hartuko dira azterketak egiterakoan, hurrengo puntuak kontuak aintzat hartuta:

- Profesionalak astean maneiatu dituzten zitostatikoen kopurua, maneiaturako dosiak ere kontuan hartuz.
- Astean edo hilabetean antineoplasikoak maneiatzen eman diren orduak.
- Laborategi azterketa eta azterketa fisikoa egitea; monitorizazio biologikoa egingo da odol edo gernuan antineoplasiko mailak dauden detektatzeko (33).

Gaur egun jarraipen hauek oraindik ez dira egiten edo ez dira maiztasunez aurrera eramaten, hainbat ikerketetan ia erizainen %80ak haien lanpostuetan kontrol mediko hauek jaso ez dituela adierazi du (2),(35),(47).

Langileen arteko kontrol medikoen eskasia mundu mailan dagoen kezken artean aurkitzen da. Kontrol hauek ez izateak langileek antineoplasikoekin jasaten duten esposizioari buruzko kezka gutxiago edo farmakoen beren osasunean eragin ditzaketen ondorio arriskutsuen pertzepzio txikiagoa izatea eragin dezake, eta horrek babes neurri pertsonal eta segurtasun neurriekiko atxikipena murriztu dezake.

Esposiziopean dagoen populazioaren biomonitorizazioa egiterakoan erabiltzen diren biomarkatzaileak aztertu izan dira, ohikoaren artean aberrazio kromosomalen detekzioa, arrea kromatiden trukaketa, mikronukleotidoen presentzia, hipoxantina-guanina fosforibosiltransferasaren mutazioak, gernuko tioeteren irazketa eta gernuaren

mutagenikotasunaren neurketa sartzan dira. Ikerketa berriek ere, immunotoxikotasunaren biomarkatzaile berri bezala polimorfismo genetikoak gehitu dute.

Gaur egun SCE (Sister chromatic exchange/ kromatida arreben trukaketa) ingurugiroko zein esposizio okupazionalaren azterketak egiteko gehien erabili den markatzailea da. SCEa meiosi zein mitosian eman daitekeen zelula trukaketa da, non kromatida arreben artean material kromosomikoak elkarbanatzen diren. Honekin batera, HFC edo frekuentzia altuko zelulak ere kontuan hartzen dira. Hauek SCE maiztasun altuagoa duten zelula espezifikokoak dira, eta beren agerpena SCE agerpen zein igoerarekin zuzenean erlazionatuta dago. Hortaz, kontrolak egiterakoan SCEn zein HFCn detekzioa aurrera eramango da. Orokorrean zelula batek bederatziz SCE baino gehiago dituen HFC bezala kontsideratzen da.

Aktualitatean, SCEa langileen esposizioa detektatzeko erabiltzen hasi berri da, hainbat ikerketen arabera arreba kromatiden elkar trukaketaren eta osasun arazoaren agerpenaren artean erlazio positiboa dagoela ikusi delako. Hala ere, bere agerpena hainbat faktoreen menpe dago: adina, tabakoa, sexua edota esposizio denbora. Izan ere, SCE/ HFC mailak altuagoak aurkitu ziren esposizio denbora luzeagoa zuten langileen artean *Nevenka et al.* aurrera eramandako ikerketan, desberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkituz (Kruskal Wallis ANOVA $P= 0.0038$ eta Media test $P = 0,0493$) (34). (Taula 6, 7)

Ikerketan lortutako emaitzek adierazten dute esposiziopean egon diren profesionalengan biomonitorizazio periodikoak egitea prebentzio neurri egokia izango litzatekela segurtasun okupazionala ziurtatzeko, zehazki, zitostatikoak gehienbat erizainengatik manipulatuak direlako, eta maneiatzen diren zitostatikoen laurden bat kartzinogenotzat hartzen delako. Kroaziako populazio orokorraren SCE balioa $4,42 \pm 1,32$ zen, bestetik, azterketan esposiziopean zeuden langileen SCE neurriak $5,63 \pm 2,28$ izan ziren, hau da, maila altuagoak agertu ziren (34).

Elsaherrek ere, 2017an Egipton ikerketa egin zuen osasun langileen esposizioa detektatzeko. Aurrera eramandako interbentzioen artean langileen odol laginen azterketa sartu zen, non odol zelulak aztetu ziren. Hemen, leukozito kopuru baxuagoak aurkitu zituzten esposiziopean zeuden ($6518 \pm 2064.79/\text{ul}$) profesionalen esposiziopean ez zeuden langileekin konparatuz ($7307 \pm 2001.40/\text{ul}$ $P=0,04$)(Taula 8). Esposizioan zeuden taldean MCH (mean corpuscular hemoglobin)

eta MCHC (mean corpuscular hemoglobin concentration) askoz baxuagoak ziren ($26,38 \pm 2,79$ fl eta $32,08 \pm 1,21$ g/dl) esposiziopean ez zeudenekin konparatuz ($27,24 \pm 2,07$ fl eta $32,65 \pm 0,88$ g/dl) ($p=0,03$ eta $p=0,00$) (22). (Taula 9)

Odoleko leukozito kopurua antineoplasikoen esposizioaren detekziorako biomarkatzaile bezala erabiltzen da, eta *Elshaherren* ikerkuntzan esposiziopean zegoen taldean zifra baxuagoetan aurkeztu zen. Honekin batera, hemoglobina ere baxuagoa zen, eta honek azkenengo urteotan egin diren beste hainbat ikerketekin bat etorritz, kimioterapiak anemia eragin dezakeela adierazten du.

Emaitza hauek izateak aplikatzen ari diren praktikak eta segurtasun neurriak ezegokiak direla adierazten du. Honekin aditzera eman nahi da langileen monitorizazio medikoak ez duela bakarrik beren osasun egoera aztertzeke balio, baizik eta ezarrita dauden segurtasun neurriak eraginkorrak diren aztertzeke (22),(34).

3. Babes neurri pertsonaleko ekipoak

3.1. Eskularruak

Kimioterapiaren maneirako baliagarriak diren produktuez egindakoak erabiltzea gomendatzen da. Neoprenoa, goma naturalezko latexa eta nitriloa 13 antineoplasikoen aurrean eraginkorrak direla ikusi da. Bestetik, eskularruak hautsik gabekoak izan behar dira, hautsak kutsatzaileak xurgatu ditzakelako.

OSHA-k 2016an egindako gomendioen arabera eskularruak 30-60 minuturo edo kontaminazioa egotekotan, momentuan bertan aldatzea da egokiena. Zitostatikoen manipulazio prozesu osoan zehar USP-ren arabera pare bikoitza erabili behar da, baita exkretan manei u zein zitostatikoen eliminazioan, NIOSH-ek 2016an egindako gidan gomendatzen duen bezala (27),(33),(46).

Hurrengo taulan Estatu batuetako gida kliniko desberdinek zitostatikoen manipulazioan erabili beharreko eskularruek izan beharreko ezaugarriak eta beren erabileran aurrera eraman beharreko jarraibideak adierazten dira (Taula 10), besteak beste, zitostatikoen aurrean erresistentzia aurkeztu duten eskularruak erabiltzea eta 30 minuturo aldatzea (46).

3.2.Batak

Erabili eta botatzekoak izan behar dira. Zitostatikoekiko iragazkortasun baxukoak, atzetik lotzen direnak, mahuka luze eta eskumutur itxikoak. Bi hiru orduro, zipriztinak izan bezain laster edota antineoplasiko injektagarriak administratzerakoan aldatzea izango litzateke egokiena. Garrantzizkoa da ere jakitea batarekin batera eskularru bikoitzak jarri behar direnean lehenengo eskularru pareta bataren barrutik sartu behar dela eta bigarrena bataren kanpotik, honela eskumuturreko azala esposizioan ez dagoela aseguratzen. Kentzerakoan prozesua kontrako noranzkoan egingo litzateke; hasieran lehenengo eskularru pareta kendu, ondoren bata, eta azkenik bigarren eskularru pareta (46). Batak, prestakuntza, administrazio eta banaketarako erabili beharko lirateke (27),(33).

3.3.Arnasbideak babesteko maskarak

Arnasbideak babesteko segurtasun neurriak babes pertsonaleko ekipoen parte garrantzitsua dira osasun profesionalen praktiken egunerokotasunean. Maskara egokia ez aukeratzeak osasuna arriskuan jarri dezake. Maskara kirurgikoak partikula handietatik, zipriztinetatik, eta espraletatik babesten gaituzte baina ez partikula txiki zein mikro partikuletatik. *Wizner et al.* egindako ikerkuntzan, 10.383 parte hartzaileetatik %18ak soilik erabili zituen arnasbideak babesteko maskara espezifikoak eta beste guztiek kirurgikoak. Arnasbidetarako maskarak erabiltzen zituzten langileen artean anestesistak eta onko/hematologiako erizainak zeuden. ONS, NIOSH eta USP arabera antineoplasikoei dagokionez zipriztinak, aerosolak edo baporizazioa egon daitezkeen eta mikro partikulak askatu daitezkeen arnasbideak babesteko maskara espezifikoak erabiltzea gomendatzen da. Hau da, maskara kirurgikoak antineoplasikoak administratzerako orduan ez dute babes nahikoa eskaintzen. Bestetik, NIOSH-ek arnasbideak babesteko maskarak isurki mota guztietan erabiltzea gomendatzen du inhalazioa ekiditeko (19),(27),(33),(46),(48)(49).

3.4. Begi eta aurpegi babesa

Zipriztin arriskua dagoenean erabili beharra dago, batik bat kimioterapia intraperitoneal eta intrabesikularrean. Betaurrekoak itxiak izan behar dira eta aurpegia babesteko mozorroek aurpegi osoa estali behar dute (27).

3.5. Exkreten, isurketen zein estrabasazioen maneirako babesa

Exkreten maneiua kimioterapia administratu osteko 48 orduetatik 7 egunetara mantendu behar da (Taula 11). Odol, gernu eta gorakoez aparte, izerdia eta esputoak ere kontuan hartu behar dira. Hainbat ikerketa daude adierazten dutenak kontaminazio bide nagusienetako bat pazienteen produktu metaboliko eta exkretak direla (29),(50). Eskularru pare bikoitza eta bata erabili beharko lirakeke pazientearen fluido korporalak maneiatzerakoan eta babes maskara zipriztin arriskua badago. Bestalde, eskuak beti garbituko dira ur eta xaboiarekin eskularruak kendu ostean edota azalera kutsatuekin kontaktuan egoterakoan (48).

Bestalde, estrabasazio kitak unitateetan eskuragarri egon beharko lirakeke antineoplasikoak maneiatzen badira. ASHAP-ek isurketak bi multzotan sailkatzen ditu; handi bezala kontsideratzen ditu 5 ml baino gehiagokoak eta txikiak 5 ml baino gutxiagokoak direnean (50),(51).

Hau guztia kontuan izanda, NIOSH-ek 2016an argitaratutako droga arriskutsuen gidan, babes pertsonaleko ekipo bakoitzak bete beharreko ezaugarriak eta erabili beharko lirakekeen jarduerak (Taula 12), eszenatoki desberdinetan erabili beharreko PPEak (personal protective equipment) (Taula 13) eta lan ingurugiroan aplikatu beharreko ingenieritza kontrol zein PPEak azaltzen ditu (46),(48),(52). (Taula 14)

4. Praktika klinikoko kontrolak

Antineoplasikoen kontaminazioa murrizteko diseinatutako neurriak dira. Aurrera eramaten ari diren praktika klinikoen kontrolak egitea antineoplasikoen esposizioa eragiten duten intzidentziak identifikatzeko oso aukera onak dira. Hainbat praktika kliniko daude ingurugiroko

kontaminazioa eragin dezaketenak; isurketen edo estrabasazio garbiketa desegokia, antineoplasikoa duen sistemaren purgaketan serum fisiologikoarekin egin beharrean farmako berarekin egitea, antineoplasikoak maneiatu ostean esku garbiketarik ez egitea edota babes ekipo pertsonalak kentzerakoan nor bere burua kontaminatzea... Praktika klinikoaren kontrolen helburua intzidentzien kausak identifikatzea da. Hauek dira kontaminazioa murriztu dezaketen praktika kliniko batzuk, lehen aipatutakoak barne hartzen dituztenak (2),(22),(41),(42),(46),(53):

- Eskuak ur eta xaboiarekin garbitzea eskularruak kendu ostean eta berriak jarri aurretik.
- Ez erabili urik gabeko produktuak eskuak garbitzerakoan; ura eta xaboiarekin egitea da hobereena.
- Ekiditu antineoplasikoen garraioan farmaziatik etorri den poltsa eskularrurik gabe erabiltzea.
- Erabili eta botatzeko plastikozko zapi xurgatzaileak erabiltzea zitostatikoen poltsak edo konekzioak uzten diren lan inguruetan, bai azalera babesteko eta medikazioa bertan gainean jartzeko.
- Farmakoaren administrazioan oinarri xurgagarria duen enpapadorea erabiltzea.
- Aho bidezko farmakoa pazienteek ezin badute solido forman hartu, farmaziako unitatetik farmako bera modu likidoan xiringa batean sartuta egin beharko lukete, hartu dezaten.
- Dosiak baieztatzeko prozesua egiterakoan ekiditu kontaktu zuzena ordenagailu eta objektuekin. Alternatiba bezala bi pertsonen artean egitea dago; bata eskularruekin maneiatzen duen heinean besteak ordenagailuan konprobaketa egiten du. Bestetik, poltsa gardenak erabiltzea egongo litzateke, barruko materiala atera gabe aztertu beharreko datuak ikusteko (farmakoak argira sentikortasuna aurkezten duten kasuetan hau ezin litzateke erabili).

5. Ingurugiroaren monitorizazioa eta garbiketa

Ingurugiroko kontaminazioa eragin dezaketen kausak hainbat dira. Segurtasun kabina biologikoak oso eraginkorrak dira eta ingeniariak kontrolak honetarako metodo primario bezala erabiltzen dira, hala ere, hauetatik ateratzen den materiala kontaminatua dagoela suposatuta behar da, hortaz material hauekin kontaktuan dauden objektuak eta azalerak kontaminatutzat hartuko dira (32).

Drogen maneirako erabiltzen diren tokien deskontaminazioa, garbiketa eta desinfekzioa egitea ezinbestekoa da kontaminazioa elimintzeko eta antineoplasikoen sakabanatzea ekiditeko. Zoritxarrez, agente kimiko garbitzaileek ezin dituzte zitostatikoak guztiz garbitu, desinfektatu eta deskontaminatu. Garbiketa praktika egokiak aurrera eraman arren, eliminazio osoa egitea oso zaila da. Horretarako, garbiketa tekniken helburua lan ingurugiroko kontaminazio kontzentrazioak ahalik eta maila baxuetara jaisteak izango da; zehazki, laginak hartzerakoan detektagarriak ez diren mailetara iritsi arte. Emaidza hauek lortzeko, ikerketa desberdinek azpimarratu dute garbiketa teknika desberdinen konbinazioa egitea dela metodorik egokiena (18).

Lan turnoaren hasieran eta bukaeran gutxienez lan ingurugiroa agente egokiarekin desaktibatuta eta ondoren garbitu beharko litzateke. Instituzioek garbiketa praktiketarako estandarrik sortu beharko litzateke antineoplasikoak maneiatzen diren guneeetan. Hala ere, USP eta NIOSH-ek garbiketa teknika bakoitzean eraginkorrenak diren eta erabili beharreko produktu ezarri dituzte 2016ko gidan (18). (Taula 15)

Garbiketaz aparte, lan inguruko azalaren kontaminazioaren kontrola (eskuoihaletan laginak hartuz) errutina batekin egin beharko litzateke droga kartzinogenoen presentzia detektatzeko. Hasieran 6 hilabeteko, edota maizago behar izanez gero kontaminazioa baieztatuzko. Laginei dagokionez, prestakuntza zein administrazio guneeetan hartu beharko lirateke. Izan ere, kontaminazioa aurkitzekotan, honen kausak identifikatu eta dokumentatu beharko lirateke etorkizunean langileen esposizio okupazionala ekiditeko, eta horretarako hurrengo pausoak aurrera eraman beharko lirateke (48):

- Lan praktiken eta garbiketa tekniken birbalioztatzea.
- Osasun langileei hezkuntza eskaintzea edota berriro ematea..

- Ingeniaritza kontrolen birbalioztatzea egin, desaktibazioa, deskontaminazioa eta garbiketa hobetzeko.
- Pauso hauek behin emanda laginak berriro hartu, hartutako neurri berriak egokiak izan diren balioztatzeko.

Babes neurrien atxikipen eza eragiten duten faktoreak

Osasun profesionalek droga arriskutsuekiko esposizio okupazionala murrizten duten segurtasun protokoloak jarraitzen ez direla adierazi da hainbat ikerketan. Praktika hauekiko atxikipen eza lan karga altu, pertsonal eskasi, materialen eskuragarritasun falta, murrizketa ekonomiko, osasun hezkuntza falta eta antineoplasikoen maneiuak berarekin dakartzan arriskuen pertzepzio ezagatik eman daiteke (36),(43).

Ezagutza falta babes ekipo pertsonalak ez erabiltzearen kausa nagusien artean dagoela adierazi da (36). Hala nola, eskularruak kendu ostean esku garbiketarik ez egitea, kimioterapia administratzeko erabili diren eskularruak jantzita izanda lan inguruko objektuak ukitzen egotea edota estrabasazioak daudenean aurrera eramane behar diren neurriak modu desegokian egitea (2). Bestalde, Espainia mailan 1995/31 langileen arrisku laboralen lege eta 665/1997 errege dekretuaren arabera hezkuntza langileen eskubideen barnean dago eta enpresaren beharra da hau eskaintzea. Errege dekretuaren 11. artikuluan osasun profesionalei eman beharreko informazio eta hezkuntzaren inguruan hurrengoa dio: *Osasun arriskuen prebentzio legearen 18 eta 19 artikuluek esaten dutenarekin bat eginez, enpresariak langileek antineoplasikoak maneiatzerakoan hartu beharreko neurriei buruzko informazioa jasotzen dutela ziurtatu behar dira, bestetik informazioa aktualizazioak eta arrisku berriak agertzen direnean emango da, edo periodikoki beharrezkoa denean* (16),(26) .

Silver et al. eta *Boianok* 1.094 erizainei inkesta pasa zieten euren unitatean esposizio okupazionala ekiditeko aurrera eramaten ziren praktika klinikoaren inguruan. Langileen %95,2a adierazi zuen lan egiten zuten enpresak antineoplasikoen maneiu segururako gida klinikoak esaten zutenaren arabera praktika klinikoak ezarrita zituztela; %95,4ak aurretik osasun hezkuntza jaso zuen zitostatikoen maneiu seguruaren inguruan eta bakarrik %34ak ez zuen hezkuntzarik jaso azken 12 hilabeteetan. Bestetik, %22a ez zuen ezagutzarik maneiu seguruaren

inguruko gida klinikoen inguruan, %90aren lan inguruan babes neurri pertsonaleko ekipoak eskuragarri zeuden eta %75,8ak uste zuen lan orduetan denbora nahiko zuela segurtasun neurri guztiak hartzeko (2),(37). *Boiano et al.* babes ekipo pertsonalak ez erabiltzearen zergatiei buruz galdetu zuten aurrera eramandako inkestan, eta eskularruak ez erabiltzearen lehenengo zergatia, larruazal zeharreko kontaminazioa minimoa zela pentsatzeagatik ematen zen (%40a), bestalde enpresak eskuragarri ez uzteagatik (%31a) eta protokoloaren parte ez direla pentsatzeagatik (%29a) ez ziren erabiltzen. Batei dagokionez, amantal iragazgaitzak ez erabiltzearen zergatien artean larruazalaren esposizioa minimoa zela pentsatzea (%42a) eta protokoloaren parte ez izatea (%35a) aurkitzen ziren. Arnasbideak babesteko maskaren atxikipenari dagokionez *Wizner et al.*, profesionalei hauek ez erabiltzearen arrazoiei buruz galdetzerakoan %32ak pentsatzen zuen beren erabilera ez zegoela protokoloaren barne, %21k uste zuen esposizioa minimoa zela, %12,5aren arabera beren enpresak ez zituen eskuragarri uzten, %11k arabera beren unitateetan ez zeuden eskuragarri, %9,7ak ez zituen erabiltzen bere lankideek ere ez zituztelako erabiltzen, %3,8ak aerosolak ez zirelako ez zituen jartzen eta %1,14 pazienteei kezka eragin ahal zirelako ez zituen jartzen (35),(49).

Langileen kontrol medikoak eta ingurugiroaren monitorizazioa ez izatea antineoplasikoek osasunean dituzten arriskuen inguruko pertzepzioa ez izatearekin eta babes pertsonaleko neurrien atxikipen faltarekin zuzenean erlazionatuta dago (47),(54),(55),(56). Lan praktikaren hasieran langileen kontrol medikoa egiteak balio basal batzuk izatea ahalbidetzen du; modu horretan, osasun arazoak egotekotan, aldaketak goiz detektatzea eskainiz. Horrela, alterazioak jasan dituzten edo esposizio akutua izan duten langileen osasun egoera monitorizatzea baimenduko luke. Honek langileek lan ingurugiro seguruaren pertzepzioa izatea ahalbidetzen du, eta hainbat ikerketan adierazi den bezala, hau segurtasun neurrien atxikipena izatearekin erlazio positiboa dauka (48).

Legalki, osasun profesionalen enpresak derrigortuta daude euren langileen kontrol medikoak egitera, are gehiago droga arriskutsuekin (haien artean antineoplasikoekin) lan egiten dutenei. Izan ere, 665/1997ko errege dekretuaren 8. artikuluan langileen osasun behaketan kontuan hartu beharreko puntuak adierazten dira, hurrengoak esanez:

- *Enpresak langileen osasunaren behaketa egokia eta espezifikoa egingo du kartzinogeno eta mutagenoen esposiziopean egotearen arriskuak direla eta. Osasun profesional*

konpetenteek aurrera eramango dituzte kontrol medikoak, bai esposizioa hasi aurretik, bai interbalo erregularretan zehar esposizioa dagoen heinean, hauen maiztasuna, kartzinogeno mota eta esposizio motaren araberakoa izango da, baita esposizioaren ondoriozko osasun asaldura egon daitekeela uste denean.

- *Osasun langileek kontrolak eskatu ditzakete.*
- *Intzidentziak izan dituzten langileen historial medikoak egingo dira.*
- *Antineoplasikoen aurrean egoteagatik langileen osasun egoeran asaldurak identifikatu direnean edo kontrol periodikoen emaitzetan aldaketak aurkitu direnean, enpresak, prebentzio neurri zein babes pertsonaleko zein kolektiboko ekipoen errebaluazioa aurrera eramango du (16).*

Hainbat ikerkuntzetan ebidentzia biologikoa aurkitu da zitostatikoen xurgapen sistemikoari dagokionez:

- Gernuko mutagenikotasuna: gernuaren mutagenikotasuna aurkitu da zitostatikoak maneiatzan dituzten profesionalengan eta efektu hau esposizio denbora igo ahala handitzen da.
- Gernu tioeterrak: Kontaminazioaren adierazleak dira; agente alkilanteen metabolitoak dira, alkilanteak kimioterapiko mota bat izanda. Zitostatikoen manipulazioa burutzen duten pertsonetan honen igoera eman da.
- Gernu metabolitoak: Zisplatino, Ziklofosfamida, eta Pantamidina aurkitu da langileen gernuan hainbat ikerketetan (26).

Hala ere, egia da oso zaila dela farmako zitotoxikoen ondorioz osasun asaldurak detektatzeko metodoak sortzea eta interpretatzea, testak sentitiboak, espezifikoak, kuantitatiboak, azkarrak eta errepikagarriak izan behar direlako. Gaur egun bibliografia batzuek diotenez ez dago puntu hauek betetzen dituen test mota eraginkorrik. Modu horretan, ideia desberdinak daude monitorizazio biologikoak eskaintzen dituen balioei dagokionez.

Bestetik, ikertzaileak ados daude puntu berean, langileen osasun monitorizazioa egiteak antineoplasikoek osasunean eragiten dituzten arriskuen inguruko eta segurtasun lan ingurugiroan egotearen pertzepzioa areagotzen du, eta horrek praktika klinikoekiko atxikipena handitzen du (42),(56).

Ingurugiroko monitorizazioa egitea gomendatzen dute NIOSH, ONS et ASHP bezalako AEB-ko erakundeek aurrera eramaten ari diren babes neurrien eraginkortasuna zein den baieztatzeko. *Mathias et al.* egindako ikerkuntzan 24 herrialdeetan aurrera eramaten ziren ingeniari-zein kontrol administratiboaren inguruan galdetu zen. 24etik 5etan (Belgika, Danimarka, Italia, Suedia, AEB) ingurugiroko laginak hartzen zituzten eskuoi-halekin erregulartasunarekin lan-ingurugiroko kontaminazioa detektatzeko (53). Monitorizazio hau oso herrialde gutxitan eramaten da aurrera. Hala ere, kontuan hartu behar da laginen bidezko ingurugiroaren kontaminazioari buruzko ikerketek ez dutela adierazten hartu beharreko lagin kopurua eta hauen tamaina. Laginak hartzeko kit-ak aurretik egiaztatuak egon beharko lirateke erabiliko den metodoa eta produktua azalera desberdinetatik droga markatzaileak hartzeko ahalmena duela bermatzeko (33).

ONDORIOAK ETA INPLIKAZIOAK

Azken urteetan zitostatikoekin lan egiten duten osasun profesionalek jasaten duten esposizio okupazionala murrizteko gida kliniko, protokolo eta neurriak sortu izan dira. Hala ere, ebidentziak adierazi duen moduan, hauekiko atxikipena ez da guztiz ematen eguneroko praktikan. Osasun hezkuntza faltak, lan ingurugiroaren monitorizazio ezak eta profesionalei kontrol mediko periodikoak ez egiteak, bi gauza eragin dizake: kimioterapiak osasunean izan ditzakeen arriskuen inguruko pertzepziorik ez izatea eta modu horretan praktika klinikoan babes neurriak ez erabiltzea (35).

Bibliografian ikuspuntu desberdinak aurkitzen dira erizainei aplikatu beharreko kontrolen inguruan. Egia da langileei aplikatu beharreko froga konplementarioek (hala nola odol zein gernu laginek) espezifikotasun zein sentikortasun nahikoa izan behar dutela zitostatikoen esposizio gradua detektatzeko eta profesionalen osasun arazoekin zuzenean erlazionatzeko; batik bat, emaitzak hainbat faktorekin asaldatuak ikus daitezkeelako, hauen artean adina, sexua edota tabakoa (22). Duela gutxiko ikerkuntzek adierazi dute DNAko asaldurak ikusten jarraitu direla antineoplasikoekin lan egiten zuten langileen odol analisietan nahiz eta segurtasun neurri egokiak aplikatzen egon. Hala ere, ikerkuntza hauen arabera DNA alterazio horiek ezin dira soilik erlazionatu agente zitotoxikoen esposiziopean egotearekin, alterazio antzekoak eragiten dituzten beste hainbat agente kimikoen aurrean egoteagatik eman daitezkeelako, esaterako, gas anestesikoak. Bestalde, maila molekularrean agertzen diren alterazioak denbora asko behar dute manifestazio kliniko bidez adierazteko, horregatik erizain hauetan ageri den osasun alterazioa jasandako zitostatikoen esposizioarekin erlazionatzea oso zaila da (26).

Hala eta guztiz ere, ikerkuntzek antineoplasikoen esposizioaren detekziorako hainbat biomarkatzaile aurkitu dituzte, hala nola, aberrazio kromosomalen detekzioa, arreba kromatiden trukaketa, mikro nukleotidoen agerpena, hipoxantina-guanina fosforibosiltransferasaren mutazioak, gernuko tioeteren irazketa, gernuaren mutagenikotasunaren neurketa, eritrozitoetako hemoglobina kontzentrazioa edota odoleko leukozito kopurua. Izan ere, leukozitosisia izatea immunodepresioaren adierazlea da eta horrek antineoplasikoekin lan egiten duten erizainek aurkezten dituzten hainbat sintoma justifikatuko lituzke, haien artean dermatitisa edo aho ultzeren garapena (22). Bestalde, arreba kromatiden trukaketaren azterketa

langileen esposizioa detektatzeko erabiltzen hasi berri da eta hainbat ikerketetan faktore honen eta osasun arazoaren agerpenaren artean erlazio positiboa dagoela ikusi da (34).

Osakidetzak medikamentu arriskutsuen inguruan 2018an eguneratutako protokoloan ez da izendapenik egin osasun profesionalei egin beharreko kontrol medikoen inguruan, nahiz eta Ameriketako Estatu Batuetako erakundeek (NIOSH, ONS, ASHP, USP) egindako gidetan jarraipen honen garrantzia azpimarratu eta Osakidetzako 2008ko protokoloan ere agertu. Honako hau kontuan hartzeko datua da, izan ere, langileei eskaintzen zaien protokoloan monitorizazio medikoaren inguruan aipamenik ez egoteak langileek kontrolak jaso ditzaketelaren eskubidea dutelaz ez ohartaraztea eragin dezakeelako. Monitorizazio medikoaren inguruan ideia desberdinak daude eta bere espezifikotasun faltak oraindik ere ziurgabetasuna eragiten du. Hala ere, ebidentziak adierazten duen bezala, zitostatikoen esposizioaren ondorioz alterazioak jasaten dituzten hainbat bio markatzaile daude eta kontrol mediko periodikoak egiteak, langileen esposizio okupazionala aztertzeaz aparte, aplikatzen ari diren segurtasun neurrien eraginkortasunari buruzko oso informazio baliagarria eskaintzen du, lan ingurugiro seguruago batean egotearen sentazioarekin eta antineoplasikoek osasunean dauzkaten osasun arriskuen pertzepzio handiagoa izatearekin batera. Guzti honek praktika klinikoekiko atxikipena areagotzea eragin dezake.

Bestalde, osasun hezkuntza kontuan hartu beharreko beste puntu bat da. Izan ere, ebidentzia gehiengoaren arabera segurtasun neurrien atxikipenean eragin handiena duen faktorea kontsideratzen da. Hezkuntza programa egoki baten helburuak kimioterapiaren maneiak dituen arriskuak deskribatzea, drogen esposizio moduak azaltzea, antineoplasikoak maneiatzeko praktika seguruak erakustea eta intzidentzien aurreran aurrera eraman beharreko neurriei buruzko azalpen zein praktika egitea izan beharko litzateke.

Onkologiako unitateetan osasun hezkuntza programa aurrera eraman duten ikerketetan antzeko emaitzak lortu dira, non interbentzioaren ostean esposizio potentzialari buruzko ezagutza hobetu den. Zehazki, *Crickman et al.* egindakoan, antineoplasikoen maneiari buruzko ezagutza 10,5eko puntuazioa izatetik, 11,2ko puntuazio izatera pasatu zen, gehiengoa 12 izanik (43).

OSHA-k gomendatzen duen moduan, osasun hezkuntza lanpostuan hasterakoan, urtero eta protokoloen eguneraketak daudenean aurrera eramán beharko litzateke. Zoritxarrez, azterlan gehienetan adierazi da programaren jarraipenak ez direla maiztasun honekin ematen(2). Osasun hezkuntzaren jarraipen ezak bi gauza hauek eragiten ditu: praktika klinikoaren inguruko kezka falta eta gida klinikoek esaten dutenaren ezagutza falta; aldi berean bi hauek babes neurrien atxikipen eza eragin dezakete.

Azkenik, ikerketa desberdinetan antineoplasikoekin kontaminatutako azalerak aurkitu dituzte, ordenagailu, erizaintza kontrol, ohe albo, logelen lurzoruan, boligrafo, arkatx, edota kimioterapia deuseztatzeke kontenedoretan (2),(45),(50).

Kutsadura honi aurre egiteko asmoz, erakundeek lan ingurugiroaren monitorizazio periodikoak egitea proposatu dute, hala ere, gaur egun bi arazo nagusi daude kontrol hauei dagokionez. Alde batetik, ez da araurik existitzen laginketa eta analisisa egiteko, hau da, ez da protokolorik aurkitzen, eta bestetik, ez dago ikerketa nahikorik jakiteko zeintzuk langileen segurtasun maila zehazteko kontaminazioaren erreferentzia balioak.

Lan ingurugiroaren azterketa droga espezifikoaren presentzia detektatzeko baliagarria da. Izan ere, honek aurrera eramaten ari diren segurtasun neurrien eraginkortasunari buruzko informazioa ematen digu eta kontaminazioa egoteak, babes neurriak egokiak ez direla edo modu egokian erabiltzen ez direla adierazten du. Kasu horietan, enpresak aplikatzen ari diren ingeniariak kontrolak berrikustera eta osasun langileei antineoplasikoaren maneiuaren inguruko hezkuntza programa ematera behartuta daude. Modu horretan, langileen segurtasunaren pertzepzioa hobetu, babes neurrien inguruko ezagutza eta atxikipena hobetu eta intzidentzien prebalentzia murriztuko litzateke.

Guzti hau esanda eta ikus daitekenez, ez dago ebidentzia espezifiko nahikorik osasun langileei egin beharreko kontrol medikoen eta lan inguruko kontaminazioaren azterketak egiteko tekniken inguruan, eta honek hainbat enpresek jarduera hauek aurrera ez eramatea eragin du. Bestetik, ikerkuntzek argi uzten dute lan giroko zein kontrol medikoak egiteak aplikatzen ari diren segurtasun neurrien eraginkortasuna eta osasun profesionalek babes neurriekiko duten atxikipena hobetzen duela, zitostatikoek osasunean duten arriskuen inguruko pertzepzioa hobetzen duelako. Hortaz, zein punturarte utzi behar zaio kontrol hauek egiteari ebidentzia

nahikorik ez egoteagatik, beren aplikazioak langileen segurtasun neurriekiko atxikipena hobetu eta intzidentziak murrizten badituzte?

Mugei dagokionez, bibliografia berriskusketa egiterakoan aurkitutako ikerkuntza gehienak transbertsalak izan dira, eta hauek ez dira ebidentzia zein kalitate maila handiena duten azterketa motak. Hala ere, artikulua nahiko eguneratuak aurkitu dira (asko azken 5 urteetan egindakoak) eta lagin kopuru handikoak (> 1.000 pertsona). Bestalde, langileek jasaten dituzten intzidentziak eta segurtasun neurriekiko atxikipena neurtzeko ikerketa mota egokiena dira; azken finean, ez delako bideragarria alderdi hauek aleatorizazioa edota itsutsea duten azterketa esperimentalen bidez egitea, aztergai bakarra analizatu nahi delako.

Osasun ingurugiroko azaleretan laginak hartzeko pautak estandarizatuak aztertzen dituzten ikerkuntza gutxi aurkitu dira. Berbera gertatzen da langileei egin beharreko odol analisietan neurtu beharreko parametroak zein esposizioa adierazten duten parametroen baloreak definitzen dituzten ikerkuntzei dagokionez. Analizatutako hainbat artikuluen arabera, aztertu beharreko parametroak ondo finkatuta ez egotearen zergati nagusien artean, zitostatikoen esposizioan egotearen ondoriozko asaldura kromosomalak agertzeko denbora tarte luzea behar dela dago. Hortaz, ezin daiteke guztiz justifikatu DNA asaldura bat zitostatikoen ondorioz soilik agertu denik, beste hainbat faktorek ere eragin dezaketelako (tabakoa, sexua, adina...).

Hau guztiagatik, antineoplasikoekin kontaktuan dauden eta ez dauden profesionalei odol analisiak denbora tarte luzeago batean zehar aztertzen dituzten ikerkuntzak egitea izango litzateke egokiena. Modu horretan, bi taldeen konparaketak eginez, bi gauza aztertuko lirateke: aldaketak jasaten dituzten odoleko parametroak eta bi taldeetako analisien emaitzetan aurkitzen diren desberdintasunak (betiere beste faktoreak aintzat hartuz).

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1. Lancharro PM, De Castro-Acuña Iglesias N, González-Barcala FJ, Moure González JD. Evidence of exposure to cytostatic drugs in healthcare staff: A review of recent literature. *Farm Hosp.* 2016; 40: 604–21.
2. Boiano JM, Steege AL, Sweeney MH. Adherence to safe handling guidelines by health care workers who administer antineoplastic drugs. *J Occup Environ Hyg.* 2014; 11(11): 728–40.
3. Gajski G, Ladeira C, Gerić M, Garaj-Vrhovac V, Viegas S. Genotoxicity assessment of a selected cytostatic drug mixture in human lymphocytes: A study based on concentrations relevant for occupational exposure. *Environ Res.* 2018; 16(1): 26–34.
4. Hessel H, Radon K, Pethran A, Maisch B, Gröbmair S, Sautter I, et al. The genotoxic risk of hospital, pharmacy and medical personnel occupationally exposed to cytostatic drugs - evaluation by the micronucleus assay. *Mutat Res.* 2001; 497(1–2): 101–9.
5. Le LMM, Reitter D, He S, Bonle FT, Launois A, Martinez D, et al. Safety analysis of occupational exposure of healthcare workers to residual contaminations of cytotoxic drugs using FMECA security approach. *Sci Total Environ.* 2017; 599–600: 1939–44.
6. Gianfredi V, Salvatori T, Nucci D, Villarini M, Moretti M. Genotoxic risk in nurses handling antineoplastic drugs: Systematic review of literature and meta-Analysis. *Recenti Prog Med.* 2017; 108(12): 511–20.
7. Kelly S, Reid A. 1481 Evaluation of the efficacy of risk management strategies in the protection of healthcare workers handling cytotoxic drugs. In *BMJ.* 2018; 75: A335.
8. Mateo González-Román M, Hidalgo García PP, Peña Otero D. Cytostatic drugs and risk of genotoxicity in health workers. A literature review. *Enfer Clin.* 2019.
9. Biró A, Fodor Z, Major J, Tompa A. Immunotoxicity monitoring of hospital staff occupationally exposed to cytostatic drugs. *Pathol Oncol Res.* 2011; 17(2): 301–8.

10. Rioufol C, Ranchon F, Schwiertz V, Vantard N, Joue E, Gourc C, et al. Administration of anticancer drugs: Exposure in hospital nurses. *Clin Ther.* 2014; 36(3): 401–7.
11. Hon C-Y, Abusitta D. Causes of Health Care Workers' Exposure to Antineoplastic Drugs: An Exploratory Study. *Can J Hosp Pharm.* 2016; 69(3): 216–23.
12. Graeve C, McGovern PM, Arnold S, Polovich M. Testing an intervention to decrease healthcare workers' exposure to antineoplastic agents. *Oncol Nurs Forum.* 2017; 44(1): E10–9.
13. Coyne E, Northfield S, Ash K, Brown-West L. Current evidence of education and safety requirements for the nursing administration of chemotherapy: An integrative review. *Eur J. Oncol. Nurs.* 2019; 41: 24–32.
14. Ratner PA, Spinelli JJ, Beking K, Lorenzi M, Chow Y, Teschke K, et al. Cancer incidence and adverse pregnancy outcome in registered nurses potentially exposed to antineoplastic drugs. *BMC Nurs.* 2010; 9: 15.
15. Poveda JL, Zamudio A, Villorejo JS, Cobos JL, Martinez de Aramayona MJ, Muedra M et al. Seguridad del profesional sanitario y paciente en la administración y la preparación de medicinas peligrosas. Documento de Consenso de Sociedades Científicas Españolas; 2015.
16. Protección de los trabajadores contra los riesgos relacionados con la exposición a agentes cancerígenos durante el trabajo. Real Decreto 665/1997 de 12 de mayo. Boletín Oficial del Estado, nº 124, (24-05-1997).
17. Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el trabajo (INSST). NTP 1.051. Exposición laboral a compuestos citostáticos: sistemas seguros para su preparación. INSST. Colección de Notas Técnicas de Prevención. 2015
18. Sessink J.M., Sewell G, Vandenbroucke J. Preventing occupational exposure to cytotoxic and other hazardous drugs. European Policy Recommendations. Brussels; 2015.
19. Osakidetza. Protocolo de manejo de medicamentos citostáticos y otros fármacos

- peligrosos. Vitoria - Gasteiz. 2018.
20. Sottani C, Porro B, Imbriani M, Minoia C. Occupational exposure to antineoplastic drugs in four Italian health care settings. *Toxicol Lett.* 2012; 213(1): 107–15.
 21. Ladeira C, Viegas S, Pádua M, Gomes M, Carolino E, Gomes MC, et al. Assessment of genotoxic effects in nurses handling cytostatic drugs. *J Toxicol Environ Health.* 2014; 77(14–16): 879–87.
 22. Elshaer NS. Adverse health effects among nurses and clinical pharmacists handling antineoplastic drugs: Adherence to exposure control methods. *J Egypt Public Health Assoc.* 2017; 92(3): 144–55.
 23. Willemson-McBride TL, Gehan K. Safe handling of cytotoxic agents: a team approach. *AORN J.* 2009; 90(5): 731-35.
 24. Osakidetza. Protocolo de manejo de medicamentos citostáticos y otros fármacos peligrosos. Vitoria - Gasteiz. 2008.
 25. García Hernampérez S. Manejo de citostáticos: riesgos para el personal de enfermería. Una revisión bibliográfica. Universidad de Valladolid; 2016
 26. Martínez de Aramayona López MJ., Sánchez-Uriz MA., Arce Valladares J., Arenaza Peña A., Barrueco Fernández N., Cabrerizo Escriano E. et al. Guía de buenas prácticas para trabajadores profesionalmente expuestos a agentes citostáticos. Ministerio de Economía y Competitividad. Madrid; 2014.
 27. Menonna-Quinn D. Safe handling of chemotherapeutic agents in the treatment of nonmalignant diseases. *J Infus Nurs.* 2015; 38(6):11–17.
 28. Pałaszewska-Tkacz A, Czerczak S, Konieczko K, Kupczewska-Dobecka M. Cytostatics as hazardous chemicals in healthcare workers' environment. *International Journal of Occupational Medicine and Environmental Health.* Nofer Institute of Occupational Medicine. 2019; 32(2): 141–59.
 29. Meade E. Avoiding accidental exposure to intravenous cytotoxic drugs. *Br J Nurs.* 2014;

23(16): 34–39.

30. Rizalar S, Tural E, Altay B. Nurses' protective measures during chemotherapy preparation and administration in Turkey. *Int J Nurs Pract*. 2012; 18(1): 91–98.
31. Pascual del Rio J. Guía sobre Agentes Químicos en el Ámbito Sanitario. *Med Segur Trab (Internet)*. 2011; 57 (223): 103-242.
32. Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo (INSST). NTP 1.134: Exposición laboral a medicamentos peligrosos: sistemas seguros para su preparación. INSST. Colección de Notas de Técnicas de Prevención. 2018.
33. United States Pharmacopeial Convention. USP General Chapter <800>: Hazardous Drugs—Handling in Healthcare Settings. Rockville, MD: USP; 2017.
34. Kopjar N, Kašuba V, Rožgaj R, Želježić D, Milić M, Ramić S, et al. The genotoxic risk in health care workers occupationally exposed to cytotoxic drugs - A comprehensive evaluation by the SCE assay. *J Environ Sci Heal, Part A: Toxic/Hazardous Subst Environ Eng*. 2009; 44(5): 462–79.
35. Boiano JM, Steege AL, Sweeney MH. Adherence to Precautionary Guidelines for Compounding Antineoplastic Drugs: A Survey of Nurses and Pharmacy Practitioners. *J Occup Environ Hyg*. 2015; 12(9): 588–602.
36. Alehashem M, Baniyadi S. Important exposure controls for protection against antineoplastic agents: Highlights for oncology health care workers. *Work*. 2018; 59(1): 165–72.
37. Silver SR, Steege AL, Boiano JM. Predictors of adherence to safe handling practices for antineoplastic drugs: A survey of hospital nurses. *J Occup Environ Hyg*. 2016; 13(3): 203–12.
38. Hon CY, Teschke K, Shen H. Health care workers knowledge, perceptions, and behaviors regarding antineoplastic drugs: Survey from British Columbia, Canada. *J Occup Environ Hyg*. 2015; 12(10): 669–77.

39. DeJoy DM, Smith TD, Woldu H, Dyal MA, Steege AL, Boiano JM. Effects of organizational safety practices and perceived safety climate on PPE usage, engineering controls, and adverse events involving liquid antineoplastic drugs among nurses. *J Occup Environ Hyg.* 2017; 14(7): 485–93.
40. Jeong KW, Lee BY, Kwon MS, Jang JH. Safety management status among nurses handling anticancer drugs: Nurse awareness and performance following safety regulations. *Asian Pacific J Cancer Prev.* 2015; 16(8): 3203–11.
41. Kienle PC. Unforeseen Dangers: Drugs That Are Hazardous to Health Care Personnel. *J of Inf Nur.* 2019; 42: 44–48.
42. Easty AC, Coakley N, Cheng R, Cividino M, Savage P, Tozer R, et al. Safe handling of cytotoxics: Guideline recommendations. *Curr Oncol.* 2015; 22(1): 27–37.
43. Crickman R, Finnell DS. Chemotherapy safe handling: Limiting nursing exposure with a hazardous drug control program. *Clin J Oncol Nurs.* 2017; 21(1): 71–78.
44. Consejo General de Enfermería. Preparación Medicación Biopeligrosa. Situación legal y normativa en España. Madrid; 2018.
45. Chauchat L, Tanguay C, Caron NJ, Gagné S, Labrèche F, Bussièrès JF. Surface contamination with ten antineoplastic drugs in 83 Canadian centers. *J Oncol Pharm Pract.* 2019; 25(5): 1089–98.
46. Polovich M, Olsen M. *Safe Handling of Hazardous Drugs.* 3rd Ed. Pittsburgh, PA: Oncology Nursing Society; 2017.
47. Constantinidis TC, Vagka E, Dallidou P, Basta P, Drakopoulos V, Kakolyris S, et al. Occupational health and safety of personnel handling chemotherapeutic agents in Greek hospitals. *Eur J Cancer Care (Engl).* 2011; 20(1): 123–31.
48. Oncology Nursing Society. *Toolkit for Safe Handling of Hazardous Drugs for Nurses in Oncology.* ONS; 2018.
49. Wizner K, Nasarwanji M, Fisher E, Steege AL, Boiano JM. Exploring respiratory

- protection practices for prominent hazards in healthcare settings. *J Occup Environ Hyg.* 2018; 15(8): 588–97.
50. Lawson CC, Johnson CY, Nassan FL, Connor TH, Boiano JM, Rocheleau CM, et al. CE: Original Research: Antineoplastic Drug Administration by Pregnant and Nonpregnant Nurses: An Exploration of the Use of Protective Gloves and Gowns. *Am J Nurs.* 2019; 119(1): 28–35.
 51. Rudnitzki T, McMahon D. Oral agents for cancer: Safety challenges and recommendations. *Clin J Oncol Nurs.* 2015; 19(3): 41–46.
 52. Connor TH, MacKenzie BA, DeBord DG, Trout DB, O'Callaghan JP. NIOSH List of Antineoplastic and Other Hazardous Drugs in Healthcare Settings. National Institute for Occupational Safety and Health (NIOSH). Publication Number 2016-161. 2016.
 53. Mathias PI, MacKenzie BA, Toennis CA, Connor TH. Survey of guidelines and current practices for safe handling of antineoplastic and other hazardous drugs used in 24 countries. *J Oncol Pharm Practice.* 2019; 25(1) 25: 148-62.
 54. Al-Azzam SI, Awawdeh BT, Alzoubi KH, Khader YS, Alkafajei AM. Compliance with safe handling guidelines of antineoplastic drugs in Jordanian hospitals. *J Oncol Pharm Pract.* 2015; 21(1): 3–9.
 55. Kim O, Lee H, Jung H, Jang HJ, Pang Y, Cheong HK. Korean nurses' adherence to safety guidelines for chemotherapy administration. *Eur J Oncol Nurs.* 2019; 40: 98–103.
 56. Stover D, Achutan C. Cse Study. Occupational exposures to antineoplastic drugs in an oncology-hematology department. *J Occup Envir Hyg.* 2011; 8(1):1–6.

ERANSKINAK

Taula 1. Farmako zitostatikoen mailak lan ingurugiroko azaleretan (euskarara itzulia).

Laginak	Zitostatikoa	ng/cm ²
7	Ciclofosfamida	<0,009-6,6
7	Ifosfamida	<0,009-0,85
7	5-Fluorouracilo	<1,8-88
7	Metotrexato	<0,9-8,6
23	Platino	10-4-0,1
23	Ciclofosfamida	ND-0,1
23	Ifosfamida	ND-0,05
23	Metotrexato	11-19 (azalera osoa)
14	Ciclofosfamida	ND-190
21	5-Fluorouracilo	<0,1-11
19	Ciclofosfamida	0,01

Pascual del Rio J. Guía sobre Agentes Químicos en el Ámbito Sanitario. Med Segur Trab (Internet). 2011; 57 (223): 103-242.

Taula 2. Farmako zitostatikoen presentzia kimioterapia gordetzeko erabiltzen diren poltsetan (euskarara itzulua) .

Laginak		Zitostatikoa	ng/cm ²
16	Bialak	Cisplatino	0,2-99 (guztira)
	Tapoiak	Cisplatino	0,6-21 (guztira)
11	Bialak	Etopósido	2,9-18,5
		5-Fluorouracilo	2,5-15,3
		Ifosfamida	0,1
		Ciclofosfamida	<0,1-0,1
		Doxorubicina	<0,1-0,2
	Kanpoko ontzia	5-Fluorouracilo	0,5
		Etopósido	ND
15	Biala	Carboplatino	7-251 (guztira)
	Biala	Cisplatino	ND-9 (guztira)
	Biala	Ciclofosfamida	ND-39 (guztira)
	Biala	Ifosfamida	ND-344 (guztira)
